



NAFARROAKO
Aldizkari Ofiziala

2020. urtea

150. zenbakia

Osteguna, uztailaren 9a

A U R K I B I D E A

ORRIALDEA

ORRIALDEA

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.2. Foru Dekretuak

- 46/2020 FORU DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duena.

6630

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

- 92E/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 11koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, 2020ko deialdia onesten duena garapenerako hezkuntza proiektuak eta sentsibilizazio ekintzak egiteko dirulaguntzetarako. DDBN identifikazioa: 511066.

6630

- 206E/2020 EBAZPENA, ekainaren 15ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako artisautza enpresen inbertsioetarako dirulaguntzen 2020ko deialdia. DDBN identifikazioa: 510941.

6636

1.5. ESTATUTUAK ETA LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAK

- 10D/2020 EBAZPENA, ekainaren 12koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren

zuzendari nagusiak emana, iragartzen duena "Asociación de Profesores de Enseñanza Secundaria de Navarra" (APSN) enpresa elkartearen desegitea gordailutu dela (gordailu zenbakia: 31000154, lehengo gordailu zenbakia: NA/381).

6639

1.7. BESTELAKOAK

- 4799E/2020 EBAZPENA, ekainaren 26koa, Barneko zuzendari nagusiak emana.

6640

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

6641

- ALTSASU 6641
- ANTZOAIN 6641
- BARILLAS 6641
- BURLATA 6641
- EUGI 6641
- GALAR 6642
- SESMA 6642
- VIANA 6642
- DEIERRI 6642

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.2. Foru Dekretuak

46/2020 FORU DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duena.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak adituz eman du bere plantilla organikoa aldatu behar dela, benetan dituen beharretara moldatzeko.

Halaber, plantilla organikoan zehaztu beharreko aferak direnez gero, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak burutza bat betetzeko betebeharrak buruz planteatu duen aldaketa jaso da. Aldaketa honek ez du kostu ekonomikorik.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiak horren aldeko txostena egin du.

Horrenbestez, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeiki uztailaren batean egindako bilkuran harturiko erabakiarekin bat, DEKRETATZEN DUT:

1. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoan lanpostu batzuk sortzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa honela aldatzen da:

Lanpostu batzuk sortzen dira plantilla organikoan, ondotik aipatzen direnak; behar den zuzkidura ekonomikoa dute indarreko gastu-aurrekontuaren I. kapituluaren:

Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak.

Barne Zuzendaritza Nagusia:

–Suhiltzaile-ofizialordeak. Hemezortzi lanpostu huts, funtzionarioen araubidekoak, B mailakoak, plantilla organikoan zenbaki hauek dituztenak: 10985, 10986, 10987, 10988, 10989, 10990, 10991, 10992, 10993, 10994, 10995, 10996, 10997, 10998, 10999, 11000, 11001 eta 11002.

2. artikulua. Burutza batzuk eskuratzeko betebeharrak aldatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa honela aldatzen da:

Aldatzen da ekainaren 18ko 73/2019 Foru Dekretuaren I. eranskina (dekretu horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatu zen, atalburutza, bulegoburutza eta unitate parekatuetako burutza batzuetarako betebeharrak finkatzeko). Aldaketa honen ondorioz, kendu egin dira Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Ataleko burutza betetzeko berriarazko betebeharrak. Atalburutza hori Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari atxikita dago, eta 9624 plantilla-zenbakia du.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetako lehena.–Foru dekretu hau garatzeko eta bete-arazteko gaikuntza.

Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta bete-arazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena.–Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2020ko uztailaren 1ean.–Nafarroako Gobernuak lehendakaria, María Chivite Navascués.–Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remírez Apesteguía.

F2007106

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

92E/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 11koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, 2020ko deialdia onesten duena garapenerako hezkuntza proiektuak eta sentsibilizazio ekintzak egiteko dirulaguntzetarako. DDBN identifikazioa: 511066.

Gure foru komunitatearen gizarte kontzientziaz jabeturik, Nafarroako erakundeek funtsak ematen dituzte Garapen Jasangarriaren Helburuak

betetzeko, zeinak Nazio Batuek hitzartu baitzituzten 2015eko irailean. Funts horiek herrialde eta herri pobretuen giza garapen iraunkorrerako ekarpen solidarioak dira, eta garapenerako laguntza ofizial gisa ematen dira.

Bestalde, Europar Batasuneko Kontseiluak irizten du sendotu behar dela nazioarteko elkartasun sentimendua, eta Europar kulturen arteko gizarte bat ezartzearen aldeko ingurune bat sortu, garapenerako hezkuntza eta hari lotutako komunikazio politika garatuz Estatu kideetan eta garapenerako hezkuntzaren arloan lanean diharduten GGKEen ekimenak babesten jarraitzeko sustatuz. Ildo berean, “Garapenari buruzko Europako kontsentsua” zehaztu da, zeinak, besteak beste, adierazten baitu Europar Batasunak parte-hartze handia bultzatzen duela herrialdeen garapenean interesa duten eragileen artean eta gizarteko sektore guztien partaidetza adoretzen duela.

Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeak printzipio gidariak, helburuak eta baliabideak ezartzen ditu Nafarroako garapenaren aldeko lankidetzari buruz. Horrela, 1. artikuluan adierazten du Nafarroako Foru Komunitateak bere egiten duela beste herrialde batzuekin lankidetzan aritzeko erantzukizuna, haien garapen integrala bultzatzeko, hango herritarren bizi baldintzak hobetzen laguntzeko eta pobretasun egoerak arindu eta zuzentzeko, giza garapen solidario eta egonkorra bultzatuz, barne direla askatasun kuota handiagoak eta hazkunde ekonomikoaren fruituen banaketa zuzenagoa.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak laguntza publiko guztiak arautzen ditu, eta bertan ezartzen dira printzipio orokorrak, kontzeptuak, irizpideak, eskumenak, eginbeharrak eta erantzukizunak, bai eta dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko bidea ere. Orobat, haren 30. artikuluen arabera, dirulaguntzaren xedeko jarduerak gauzatzen direnean aurrekontuko ekitaldiarekin bat ez datorren urteko aldi batean (ikasturtean, adibidez), hurrengo ekitaldirako behar den gastu konpromisoa eskura daiteke, eta ez da nahitaezkoa horretarako Nafarroako Gobernuaren baimena.

Horrenbestez, beharrezkoa da oinarriak ezarri eta argitaratzea garapenerako hezkuntza proiektuak eta sentsibilizazio ekintzak egiteko dirulaguntzetarako, dirulaguntza horietan bermatu daitezkeen publikitatearen, gardentasunaren, konkurrentziaren, objektibotasunaren, berdintasunaren, bereizkeriarik ezaren eta kontrolaren printzipioak, baita administrazio emaileak finkaturiko helburuak lortzeko eraginkortasunaren printzipioa eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko efizientziaren printzipioa ere.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen bidez eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 268/2019 Foru Dekretuaren bidez esleitu dizkidaten ahalmenak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. 2020ko deialdia onestea garapenerako hezkuntza proiektuak eta sentsibilizazio ekintzak egiteko dirulaguntzetarako.

2. Deialdiaren oinarri arautzaileak onestea. Foru agindu honen eranskinean jaso dira.

3. 870.000 euroko urte anitzeko gastua baimentzea, honela banatuta: 616.000 euro 2020ko ekitaldirako, 2020ko Gastuen Aurrekontuko “Garapenerako nazioarteko lankidetzari” izeneko 900004 91100 4819 143102 partidaren kargura; eta 254.000 euro 2021eko ekitaldirako, 2021eko Gastuen Aurrekontuetan horretarako gaitzen den partidaren behar adinako kreditua baldin badago.

4. Foru agindu hau eta eranskinak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5. Deialdi honen eta oinarri arautzaileen kontra gora jotzeko erre-kurtsoa jar daiteke, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita.

6. Foru agindu hau igortzea Diru-sarreraren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuari, baita Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari ere, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2020ko ekainaren 11n.–Eskubide Sozialetako kontseilaria, María Carmen Maeztu Villafranca.

I. ERANSKINA

2020ko deialdiaren oinarriak garapenerako hezkuntza proiektuak eta sentsibilizazio ekintzak egiteko dirulaguntzetarako

Lehena.–Xedea eta helburuak.

1. Eskubide Sozialetako Departamentuak egindako dirulaguntzen deialdi honen bidez, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeekin (GGKE) eta unibertsitateekin batera, garapenerako lankidetzaren eragile diren heinean, esku-hartzeak finantzatu dira, helburu izanen dutenak

gizarteak hobeki ulertzea garapen bidean diren herrialdeen arazoak eta kontzientzia eta ulermen kritikoa garatzea elkarren mende dagoen munduari buruz, elkartasuna eta lankidetzak aktiboak bultzatuz.

2. Esku-hartzeak Nafarroako Foru Komunitatean egin beharko dira, eta hiru motatakoak izan daitezke:

–A modalitatea: sentsibilizazio ekintzak. Esku-hartze horien xedea da garapen bidean dauden herrialdeen arazoak ezagutzea errazte, batik bat aurrerapen txikiak duten herrialdeena, eta ulertzen laguntzea txirotasunaren arrazoiak eta globalizazioaren harreman ekonomikoak, sozialak eta kulturalak.

–B modalitatea: garapenerako hezkuntza esparru ez-formalean. Esku-hartze horiek hezkuntza prozesuak bultzatzen dituzte, hezkuntza formalaren esparrutik kanpo hezteko asmoa izanik eta planifikatuta daudela irakaskuntza-ikaskuntzaren esperientziak.

–C modalitatea: garapenerako hezkuntza esparru formalean, hau da, legez araututako hezkuntza sisteman garatzen diren jarduerak pedagogiko guztiak. Zenbait urtetarako esku-hartzeak izanen dira, ikasturte batean egiten baitira.

Esku-hartze guztiak diseinatu eta gauzatzen genero ikuspegia txertatu da, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearekin bat.

Bigarrena.—Aurrekontuko diru erabilgarria modalitatearen arabera.

Guztira, 2020. urtean, helburu horietarako, 616.000 euro bideratuko dira, 2020ko Gastuen Aurrekontuko “Garapenerako nazioarteko lankidetzak” izeneko 900004 91100 4819 143102 partidaren kargura. Zenbatekoa lau modalitateen artean banatuko da, honela:

–A modalitatea: sentsibilizazio ekintzak: 350.000 euro.

–B modalitatea: garapenerako hezkuntza esparru ez-formalean: 100.000 euro.

–C modalitatea: garapenerako hezkuntza esparru formalean: 166.000 euro.

2021eko ekitaldirako, eta C) modalitaterako soilik (garapenerako hezkuntza esparru formalean), 254.000 euro egotziko dira; betiere, 2021. urteko gastuen aurrekontuetan xede horretarako gaitzen diren partidetan kreditu nahikoa bada.

Modalitateen batean 2020. urterako aurreikusitako kreditua agortzen ez bada, sobratzen den dirua besteen artean banatuko da, lehentasun hurrenkera honi jarraituz: C modalitatea: Hezkuntza formala; B modalitatea: Hezkuntza ez formala; A modalitatea: Sentsibilizazioa.

Hirugarrena.—Entitate onuradunek bete beharreko baldintzak.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak hartu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte garapenerako gobernu kanpoko erakundeek (GGKE) eta unibertsitateek:

a) Garapenerako gobernu kanpoko erakundeak izanez gero, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, inskribaturik egon beharko dute Espainiako Garapenerako Lankidetzarako Agentziako (AECID) Garapenerako Gobernu kanpoko Erakundearen Erregistroan.

b) Sozietatearen egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean edukitzea.

c) Zerga arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatea, baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari edo haren erakunde autonomoei zorrak ordaintzeko betebeharrak ere.

d) Ez egotea dirulaguntzak eskuratzeko gaitasunaz gabeturik ebazpen irmoan ezarritako zehapenaren ondorioz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko legeetan, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen edo zergei buruzko lege orokorretan ezarritakoaren arabera.

e) Dirulaguntzen onuraduna izateko gainerako debeku-egoeretan ez egotea, zeinak jaso baitira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan.

f) Gainera, hiru entitate edo gehiagoren batasunek ere hartzen ahaliko dute parte, berezko nortasun juridikoa izan edo ez, eta, hortaz, onuradunak izaten ahaliko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 8. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoarekin bat. Kasu horretan, batasuneko entitate bakoitzak lehen aipatutako baldintza guztiak bete beharko ditu. Unibertsitateen kasuan, C modalitatean bakarrik aurkeztu ahaliko dira, hau da, “garapenerako hezkuntza esparru formalean” izenekoan.

Laugarrena.—Esku-hartzeetan bete beharreko baldintzak.

Dirulaguntzak hartu ahal izateko, entitate eskatzaileek aurkeztu dituzten esku-hartzeek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Lotuta egotea deialdi honen lehen oinarriko xede eta helburuei eta Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen 2., 3. eta 7. artikuluetako printzipioei.

b) Finantzaketaren %20, gutxienez, entitateen beren funtsetatik aterako da, beste administrazio publikoetatik —berariaz kenduta Nafarroako Gobernuaren beste departamentuak eta erakunde autonomoak— edo beste entitate batzuetatik.

c) A eta B modalitateetako jarduerak 2020an egin behar dira. C modalitateko jarduerak, berriz, 2020-2021 ikasturtean.

d) Zeharkako kostu diruz lagungarriak ezin izanen dira dirulaguntzaren %10 baino gehiago izan.

e) Hauek dira esku-hartze bakoitzeko eskatzen ahal diren gehieneko zenbatekoak:

–A modalitaterako (sentsibilizazio ekintzak): 25.000 euro.

–B modalitaterako (garapenerako hezkuntza esparru ez-formalean): 25.000 euro.

–C modalitaterako (garapenerako hezkuntza esparru formalean): 35.000 euro GGKEen kasuan, eta 20.000 euro unibertsitateen kasuan.

Bosgarrena.—Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1. Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaz aparte beste administrazio publiko batzuek, beste erakunde publiko zein pribatu batzuek edo norbanakoek, nazionalek edo atzerrikoek, jarduera bera garatzeko ematen dituztenekin.

2. Ematen diren dirulaguntzen zenbatekoak ez du sekula gaindituko, bakarrik edo beste erakunde edo entitate pribatu zein publiko batzuen laguntzekin batuta, diruz lagundutako jardueraren kostua.

Seigarrena.—Gastu diruz lagungarriak.

1. Gastu diruz lagungarriak partida hauetan sartzeko modukoak izanen dira:

a) Zuzeneko gastuak: zalanarik gabe dirulaguntza jasotzen duen jardueraren izaerarekin bat datozenak, baldin eta esku-hartzea gauzatzeko ezarritako epean egiten badira. Hauek daude sartuta:

a.1. Jarduerak egiteko lokalen alokairua.

a.2. Materialak eta hornidurak.

a.3. Langileria gastuak.

a.4. Bidaia, ostatu hartzea eta dietak.

a.5. Zerbitzu teknikoak eta profesionalak.

b) Zeharkako gastuak: dirulaguntzari %10eko edo hortik beherako zenbatekoa aplikatzen ahaliko zaio proiektuaren zeharkako kostuen konzeptuan. Zeharkako gastuak GGKEaren ohiko funtzionamenduaren gastu administrazioak dira, esku-hartzea egiteko beharrezkoak direnak; horien %75 gutxienez Nafarroan egindako gastuak izanen dira.

Gastuak justifikatzeko, hamabosgarren oinarrian ezarritakoari jarraikiko zaio, salbu frogatzen zailak diren gastuak. Izan ere, horrelakoetan, GGKEaren legeko ordezkariak gastu horien gaineko ziurtagiria egin beharko du. Ziurtagiriaren honako hauek agertuko dira: zenbatekoa, gastu motaren aipamena, diruz lagundutako esku-hartzearekin duen lotura eta zergatik den ezinezkoa arau orokorren arabera justifikatzea. Gainera, gastuaren frogagiriak aurkeztuko dira: fakturak, kontabilitatearen egoera-orri ikuskatuak edo gastua egiazki egin dela frogatzen duten bestelako agiriak. Ziurtagiri horren bitartez justifikatuko den diru kopuruak ez du zeharkako gastuen %30 edo dirulaguntzaren %3 gaindituko.

2. Langileria gastuak jarduerak xehakaturik aurkeztu behar dira, hauek azalduta: bakoitzean langileek zenbatsu ordu emanen dituzten, orduaren prezioa eta guztira zenbat ateratzen den.

3. Gastu finantzarioak, notarioenak eta erregistrokoak, diruz lagungarriak dira baldin eta diruz lagundutako jarduerari zuzenean lotuak badaude eta hura prestatu edo burutzeko ezinbestekoak badira.

4. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaren etekin finantzarioak gehituko zaizkio dirulaguntzaren zenbatekoari, eta dirulaguntzaren xede den jarduerari ere aplikatuko zaizkio.

5. Diruz lagundutako gastuak zerbitzuak emateko erabiltzen direnean eta 12.000 eurotik gorakoak direnean, txosten gehigarri bat aurkeztuko da, hornitzaileak hautatzeko prozedurari eta irizpideei buruzkoa, gutxienez haietako hiruri eskatutako aurrekontuekin batera.

6. Mota guztietako inbertsioak dirulaguntzetatik aparte gelditzen dira (ekipamenduak, garraio elementuak, lurrak, eraikinak...). Dirulaguntzari gabe geldituko dira, oro har, protokolo-gastuak (barkariak, harrera-ekitaldiak, opariak, loreak, ikuskizunetako sarrerak, etab.). Langileen joan-etorriei dagozkien bidaia, ostatu eta mantenu gastuak dirulaguntzaren kontura egotzi ahal izateko, jarduerak egitearekin lotura zuzena izan behar dute, betiere gainditu gabe Gobernuak 2012ko azaroaren 28an hartutako Erabakian kostu errealearen gainean ezarritako muga. Erabaki horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren

erakunde autonomoen zerbitzuko enplegatuek joan-etorriengatik egiten dituzten gastuak onetsi ziren (2012ko 244. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, abenduaren 17koa).

7. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzatik kanpoko ekarpen gisa onartuko dira lokalen alokairuen gaineko balioztatzeak, material didaktikoak eta borondatez eta doan egindako lanorduek, horrelako ekarpen guztien %35eraino, gehienez.

Zazpigarrena.—Eskaerak aurkezteak.

1. Entitate interesdunaren legezko ordezkariak sinatuta aurkeztu beharko da eskabidea, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik 20 egun naturaleko epean.

2. Entitate eskatzaile bakoitzak hiru esku-hartze egiteko aurkez dezake eskaera, baina hirurak ezin dira izan modalitate berekoak. Horren ondorioetarako, entitateen batasun bat eta haren barreneko entitate bakoitza entitate desberdinak direla ulertuko da.

3. Eskaerak modu telematikoa aurkeztuko dira, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Elektronikoa, Garapenerako Lankidetzaren eta Ekintza Humanitarioaren Atalera zuzenduta. Entitateak gaitutako helbide elektronikoa (GEH) eduki beharko du deialdi honen gaineko jakinarazpenak jasotzeko.

Erregistroaren funtzionamendu okerrak aurkezpen telematikoa egitea eragozten duen kasuetan bakarrik onartuko dira aurkezpen ez telematikoa Eskubide Sozialetako Departamentuaren Erregistroetan (González Tablas 7, 31005 Iruña) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako tokietan, behin eragozpen hori gertatu dela frogatuta.

Horrez gain, eskaerak Nafarroako Gobernuaren ez diren beste erregistro ofizial batzuetan aurkezten badira, aurkezpen horren berri eman beharko diote unitate kudeatzaileari, mezu elektronikoa bidaliz servcoopdes@navarra.es helbidera, aurkezpenaren egunean berean.

Posta bulegoen bitartez aurkezten diren eskaeren kasuan, bete beharko dira Posta zerbitzuak arautzen dituen abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuan aurreikusitako zehaztapenak. Entitate eskatzaileek iragarriko dute eskaera bidali dutela, mezu elektronikoa bat igorri servcoopdes@navarra.es helbidera, egun berean.

4. Eskaera adierazitako epetik kanpo aurkeztuz gero, ez da onartuko.

Zortzigarrena.—Aurkeztu beharreko agiriak.

Entitate eskatzaileek inprimaki ofizial batean eginen dute eskaera, eta dokumentazio hau gehituko diote:

A) Entitate eskatzailearen dokumentazioa:

—Hirugarren oinarrian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak (horiek Foru Komunitateko Administrazioak ez badauzka edo haien edukia aldatu bada):

a) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren GGKEen Erregistroan egindako inskripzioaren ziurtagiria; bereziki adieraziko da ordezkari bat zabalik dutela Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean. Aipamen horren ordez aurkezten ahal da beste erregistro administratibo batek emandako ziurtagiri osagarria, ordezkari hori badela frogatzen duena, edo notarioaren agiria, fundazioen kasuan. Ziurtagiri horrek/horiek urtebete baino gutxiagoko antzinatasuna izan beharko du/dute, deialdi hau argitaratzen den egunean. GGKEak ez diren beste agente batzuekin osatutako elkarteek dagokienez, aurkeztu beharko dute kasuan kasuko erregistroan inskribatzeko ziurtagiria, entitateko estatutuekin edo antzeko agiriarekin batera, edo, bidezko bada, Nafarroan egoitza edo bulego iraunkorra duela frogatzen duen agiriarekin batera.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, entitatearen ordezkariak egina, esaten duena entitateak, haren administratzaileek eta ordezkariak ez dutela urratzen dirulaguntzen onuradun izateko debekurik. Debeku horiek dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan ageri direnak; bereziki, 13.2 artikuluko g) apartatuko entitateak ezin dira onuradun izan: "Ebazpen irmoan ezarritako zehapenaren ondorioz, foru lege honetan, zergei buruzko lege orokorrean edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko legeetan aurreikusitakoaren arabera dirulaguntzak lortzeko gaitasunaz gabeturik daudenak".

c) Baldin Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako langileek parte hartzen badute esku-hartzeko zikloaren faseren batean, aurkeztu beharko dira langile horien izenen zerrenda eta programan egin beharreko eginkizunak eta eman beharreko denbora; horrekin batera, pertsona horietako bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena beren lana proposatutako jarduerarekin bateragarria dela.

d) Entitateen batasunak izanez gero, erakunde bakoitzaren agiriez gain, honako hauek aurkeztuko dituzte:

d.1) Entitateen batasuna eratzeko agiria. Batasunak berezko nortasun juridikorik ez badu, eratze agirian berariaz azaldu beharko da nola deitzen den batasunari, onuraduna den aldetik, dagozkion eginbeharrak betetzeko adina ahalmen duen ahaliduna edo ordezkaria, eta ez desegiteko konpromisoa hartzen duela harik eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen preskribatzeko aipatzen den epea bukatu arte.

d.2) Elkartea edo batasuna osatzen duen entitate bakoitzak, batasunaren kontura eta haren izenean, bere gain hartzen dituen eginkizunak eta konpromisoak adierazten dituen agiria. Haietako bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa ere azalduko da.

e) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera, aurreko dirulaguntzak sartzeko bankuko kontua aldatu bada.

f) Nahi izanez gero, entitate eskatzaileek aurkez dezakete, dirulaguntza eskabidearekin batera, deialdi honen hemezortzigarren oinarrian araututa dagoen garrantasun betebeharrak betetzeko behar den informazioa. Informazio hori eskaerarekin batera aurkezten ez badute, dirulaguntza jasotzen duten entitateek bete beharko dute oinarri hartan ezarritakoa, eta hilabeteko epea izanen dute informazio hori aurkezteko, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik hasita, edo, kasua bada, argitaratzen den egunetik hasita.

B) Balorazioa egiteko dokumentazioa:

a) Esku-hartzearen memoria teknikoak eta aurrekontua, inprimaki ofizialetan.

b) Azken hiru urteotako urteko kontuak (2017, 2018 eta 2019), kontu horiek ikuskatuak, entitateko zuzendaritza organoek onetsiak, behin-behinekoak edo bestelakoak diren adierazita.

c) Eranskinak: dokumentazio grafiko, tekniko eta ekonomikoa (proforma fakturak, aurrekontu profesionalak, eta abar), eta esku-hartzeaz ongi jabetzeko beharrezkotzat jotzen den bestelako dokumentazioa. Adieraziko da II. eranskineko ("Balorazio irizpideak") zer atali dagokion, eta zehaztu beharko da aztertutako edukia eranskineko zein tokitan dagoen.

d) Aurrekustutan bada entitate publiko edo pribatuaren lokaletan (udalak, beste departamentu batzuk, NUP, elkarteak, etab.) eginen direla jarduerak, agiri bat aurkeztu behar da, frogatzeko lokalaren jabea den entitatea programatutako jarduerarekin ados dagoela.

Bederatzigarrena.—Dirulaguntza emateko prozedura eta instrukzioa.

1. Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokakoa izanen da, bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.1 artikuluekin.

2. Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiak tramitatuko ditu eskaerak, eta instrukzio organo gisa ariko da Diru-sarreraren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua. Horrexek egiaztatuko du ea betetzen diren dirulaguntzak hartzeko betebeharrak, eta eskaerak baloratuko ditu ofizioz, oinarri hauen arabera.

3. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 19.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, entitate eskatzaileari eskatzen ahalgo zaio hamar egun balioduneko epean hutssegiteak zuzendu ditzala edo aginduzko agiriak aurkeztu, eta ohartaraziko zaio hori egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera uzten duela, eta espediente artxibatuzko ebazpena eman ondoren. Kasu hauetan gertatuko da hori:

a) Eskaeran identifikazio daturik ez dagoenean, dela eskatutako dirulaguntzari dagozkionak, dela entitate eskatzaileari buruzkoak.

b) Zortzigarren oinarriaren A ataleko dokumentazioan akatsak izatea.

c) Akats materialak daudenean, laugarren oinarrian ezarritakoari jarraikiz, esku-hartzeak bete beharreko baldintzetan.

d) Aurrekontua aldatu beharra dakarten arazoak (akats aritmetikoak, okerreko datuak, oso errealistak ez diren kostuak edo hautagarriak ez diren beste kostu batzuk). Horren ondorioz, gauzak argitzeko eskatzen ahalgo da, eta instrukzio organoak aldatetako edo murrizketak ezartzen ahalgo ditu akats edo datu zehaztugabe horiei aurre egiteko.

e) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritako kasuetako edozein.

Gainerako kasu bakar batean ere, eta, bereziki, baloratzeko aurkezten den dokumentazioari lotutako kasu bakar batean ere, ez da zuzentzeko aukerarik izanen.

Hamargarrena.—Eskaeren balorazioa eta dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztea.

1. Eskaerak zein bere modalitatean (lehenbiziko oinarrian adieraziak) baloratuko dira, 0tik 1.000 puntura arteko eskalan, II. eranskinean adierazitako irizpide objektiboak eta haien haztapena kontuan hartuta.

2. Dirulaguntzarako eskaera baiesteko, esku-hartzeak gutxienez ere 500 puntu lortu beharko ditu guztira, eta horietatik 40 gutxienez II. eranskinaren zeharkako ikuspegiak egokitasun irizpideei lotutakoak izanen dira.

3. Dirulaguntza eskatzen den zenbatekoa adinakoa izanen da.

4. Baldin modalitate bakoitzean balorazio positiboa lortzen duten eskaera guztiek gainditzin badute aurrekontuetan horretarako dagoen dirua, lehentasun hurrenkera bat ezarriko da, balorazioan lorturiko puntuazioaren arabera, eta dirulaguntzak muga horretaraino banatuko dira. Prozedura horren arabera dirulaguntza eskuratzen ahal duen azken proiektuarentzat eskatutakoak gainditzin duenean hura finantzatzeko dagoen zenbatekoa, dirulaguntza ematea proposatuko da haren kontzesioa eraginkorra bada, eta horretarako 11. oinarriko 2. puntuan aurreikusitakoari jarraituko zaio.

Hamakagarrena.—Alegazioen tramitea.

1. Instrukzio organoak proposamen-txostena eman aurretik, erakunde onuradunei entzuteko tramitea egin daiteke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluari jarraikiz.

2. Baldin dirulaguntzaren proposamenaren zenbatekoa txikiagoa bada aurkeztutako eskaeran ageri dena baino, instrukzio organoak eskatzen ahal du eskaera berregiteko, konpromisoak eta baldintzak egokitu daitezkeen ematen ahal den dirulaguntzaren arabera, betiere hasierako xedea eta ezaugarriak errespetaturik. Aldatutako proiektu horren aurrekontua ez da txikiagoa izanen proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoaren eta, halakorik badago, hasiera batean antzeko baldintzetan aurreikusitako kofinantzaketaren batura baino (eskaeran ageri den kofinantzaketaren portzentaje bera mantenduko da).

Hamabigarrena.—Prozeduraren ebazpena.

1. Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio aurkeztutako eskaeren gainean ebaztea, horretarako ahalmena ematen baitiote Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak eta Eskubide Sozialerako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 268/2019 Foru Dekretuak.

2. Modalitate bakoitzerako ebazpen bat emanen da, honako hauek jasoko dituen: dirulaguntzak zer eskatzaileri esleitu zaizkion, laguntzen helburua, zenbatekoa, ordaintzeko eta justifikatzeko modua eta epea, eta gainerako eskaerak ezesteko arrazoiak, Dirulaguntzei buruzko arazoaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 21. artikuluan xedatu bezala. Egokia ikusiz gero, ebazpen bakar batean bil liteke modalitate bat baino gehiagoren kontzesioa.

3. Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta 6 hilabeteko epean berarizko ebazpenik jakinarazten ez bada, ukatu egin direla ulertuko da.

Hamahirugarrena.—Jakinarazpena eta argitalpena.

Modalitate bakoitzaren ebazpena administrazio prozedura arautzen duten legeetan ezarri bezala jakinaraziko zaie entitate onuradunei, eta Nafarroako Atarian argitaratuko da.

Hamalagarrena.—Dirulaguntza ordaintzea.

1. 2020. urteko dirulaguntza aldeztu aurretik ordainduko da, ordainketa bakar batean, dirulaguntzak emateko ebazpenaren ondotik.

2. C modalitaterako: 2021eko dirulaguntza aldeztu aurretik ordainduko da, 2020ko dirulaguntza aldeztu eta Nafarroako Gobernuaren kanpoko diru-ekarpenaren justifikazio txostena aurkeztu ondoren.

3. Hori guztia, gardentasun betebeharrak bete ondoren, betiere ez badio kontra egiten Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen ezarritakoari. Betebehar hori zehaztuta dago deialdi honen hemezortzigarren oinarri arautzailean eta irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuan, zeinak arautzen baititu Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen onuradunen gardentasun betebeharrak.

Hamabosgarrena.—Dirulaguntzaren justifikazioa.

1. Esku-hartzeak bukatu eta hilabeteko epean gehienez, entitate onuradunek esku-hartzearen gauzatzeari buruzko azken txostena aurkeztuko dute, www.cooperacion.navarra.es webgunean eskura dagoen eredu ofizialaren arabera. Txostena aurkezteaz zailtzen duten inguruabarrak gertatuz gero, Diru-sarreraren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak aukera du epe horren luzapena baimentzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan eta Garapeneraren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen 16.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Urte anitzeko finantzabidearen kasuan, eta 2021. urteko ordaintzearen ondorioetarako, 2020ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da 2020an emandako parteen exekuzio partzialari buruzko txostena.

3. Txosten partzialak eta azken txostenak justifikazio-kontuaren itxura izanen dute, eta gastua justifikatzen duten agiriek batera aurkeztuko dira. Hurrengo elementu hauek jasoko dituzte:

a) Justifikazioaren txosteneko dokumentazioan ageri diren datu guztiak egiazkoak direla dioen erantzukizunpeko adierazpena, entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatua.

b) Esku-hartzearen gauzatzeari buruzko txosten teknikoa, eta, halakorik bada, egiaztatze-iturriak.

c) Txosten ekonomikoa, erantsita esku-hartzearen aurrekontuaren exekuzioari buruzko azalpen txostena, Excel formatuan, Nafarroako Atarian eskura dagoen eredu ofizialaren arabera prestatua (www.cooperacion.navarra.es). Txosten horretan honako hauek jasoko dira:

—Esku-hartzearen gastuen kontua.

—Diruz lagundutako jardura finantzatzeko jaso diren bestelako diru-sarrerak, dirulaguntzak edo laguntzak, publikoak edo pribatuak, baita haien zenbatekoa eta jatorria ere.

—Gastu guztien zerrenda, jardura eta gastu motaren arabera bereizita, barnean dela Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza ez beste ekarpen batzuekin finantzatutako gastuen zerrenda. Gastu bakoitzean honako hauek agertuko dira: zerrendan zer dokumentu zenbaki duen, egiaztagiraren zenbakia eta data, igorlearen izena edo helbidea eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia edo antzekoa, kontzeptua, egiaztagiraren testua (luzea izanez gero, laburtzen ahalko da), ordaintzeko modua, zenbat ordaindu den tokiko moneta eta hori zenbat den eurotan.

d) Gastuen zerrendekin batera, frogagiriak aurkeztuko dira, kasuan kasuko kontrol organoak egiaztatu ahal izateko. Horrek laginen bidez berrikusten ahalko ditu. Egiaztagirak fakturak izanen dira, edo, halakorik ezean, banku-laburpenak, ordainagiriak, kaxako erregistroak, gastuen oharrik edo bestelako agiriak. Egiaztagiri horiek, betiere, zerrendan aipatzen diren datuak adierazi beharko dituzte. Frogagirikin batera, dagokien ordainketa egin dela justifikatzeko agiriak aurkeztuko dira.

Frogagiri guztiek eginbide-zigilua eraman beharko dute, Nafarroako Gobernuak finantzatzeko dituela adierazteko. Eginbidean, gutxienez, honako hauek jasoko dira: espediente zenbakia; "Nafarroako Gobernuak finantzata" testua; eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaren kargura finantzatutako diru kopurua edo portzentajea.

e) Justifikatzen den gastua ez bada iristen aurreratutako edo kontura ordaindutako guztizko zenbatekora, frogagiri bat aurkeztu beharko da erakusteko diru-sarrera bat egin dela Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren alde, aurreratutako edo kontura ordaindutako zenbatekoaren eta justifikatutako zenbatekoaren arteko aldea adinakoa, deusetan galarazi gabe dirulaguntzaren espedientea ixten duen ebazpenean ezartzen dena. Diru-sarrera hori ordainketa-gutun baten bidez egingen da, entitate onuradunak kudeaketa organoari eskatu beharko diona, eta horren bidez ulertuko da entitateak uko egiten diola itzultzen duen diru zenbatekoari.

f) Beste edozein dokumentazio grafiko nahiz idatzi, borondatez eman nahi dena, diruz lagundutako proiektuaren gauzatzearen edo bilakaera onaren berri emateko.

4. Baldin Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza besteko finantzaketarik bada, entitateak berak emandako ziurtagiri bat aurkeztuko da, funts pribatuaren kasuan, edo aldeko ebazpenaren kopia bat, zenbatekoa eta proiektua adierazita, baldin bestelako dirulaguntza publikoak badira. Nafarroako Gobernuaren finantzaketatik kanpoko ekarpen gisa onartutako balioztatzeen kasuan, seigarren oinarriaren 7. puntuan xedatutakoari jarraituko zaio.

5. Diru-sarreraren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak, diruz lagundutako jardura behar bezala justifikatu dela egiaztatu ondoren, dirulaguntzari buruz dagokion administrazio espedientea itxiko du, eta horren berri emanen zaio entitate onuradunari.

Hamaseigarrena.—Azpikontretazioa.

Entitate onuradunak esku-hartzearen zati bat gauzatzeko hirugarrenak azpikontretatzen ahalko ditu; horretarako, diruz lagundutako aurrekontuaren %25 erabiltzen ahalko du, gehienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 26. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Hamazazpigarrena.—Entitate onuradunen betebeharrak.

Esku-hartze jakin baterako dirulaguntza jasotzen duten entitateek betebehar hauek izanen dituzte:

a) Eskaeran eta dirulaguntza emateko baldintzetan zehaztutako moduan gauzatzea esku-hartzea. Gauzatzeko epeari dagokionez, esku-hartzea gauzatzea larriki zailtzen edo aldatzen duten inguruabarrak gertatuz

gero, Diru-sarreraren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak aukera du epe horren luzapena baimentzeko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan eta Garapenerako aldetik Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen 16.1.c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

b) Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiari baimena eskatu eta hura eskuratzea, diruz lagundutako esku-hartzean aldaketak egin ahal izateko, baldin eta esku-hartzea gauzatu bitartean haren garapena larriki aldatu edo zailtzen duten inguruabarrik gertatzen bada. Berdin egin beharko da baliabideak eraginkortasunez erabiltzeagatik gerakinik baldin badago. Azken kasu honetan, diruz lagundutako esku-hartzeari dagozkion jarduerak edo antzekoak zabaltzeko eskaera bat egin beharko dute. Funtsezko aldaketak izateko, honako hauetan izan beharko dute eragina: helburuetan, emaitzetan, xedeko populazioan, lurralde kokapenean, kontu-sailetako aldaketa dirulaguntzaren %20 baino handiagoa denean, edo guztirako kostuaren %10 edo gehiago gutxitzen bada Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzatik kanpoko beste ekarpen txikiago baten ondorioz; betiere, laugarren oinarriaren b) atalean ezarritako baldintza urratu gabe. Esku-hartzea gauzatu bitartean gertatzen diren gainerako gorabehera eta aldaketak arrazoiak adieraziko zaizkio Nafarroako Gobernuari azken txostenean, barnean dela guztirako kostua handitzea, Nafarroako Gobernutik kanpoko finantzabideak handitzeagatik.

c) Komunikatzea zer dirulaguntza eskatu dituzten eta onartu zaizkien, eta zer zenbatekorekin, edozein erakunde publiko edo pribatuen aldetik, helburu bererako, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza hartu ondoren. Jakinarazpen hori azken justifikazio txostenean egin beharko da.

d) Organo emaileari justifikatzea betebeharrak eta baldintzak bete direla, dirulaguntzaren xedeko jarduerak egin dela eta dirulaguntza hartzeko helburua lortu dela, deialdi honen hamabosgarren oinarrian aipatzen den azken txostenean bidez. Justifikatutako zenbatekoa dirulaguntzaren zenbateko aurreratua baino txikiagoa izatera, erabili ez diren funtsak itzuliko dira, organo kudeatzaileak emandako ordainketa-gutunaren bidez.

Betiere, pertsonen buruzko datuak, azken onuradunenak izan edo esku hartzen duten langileenak izan, sexuaren arabera bananduta egon diren, bat edo horiek Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean xedatutakoarekin.

e) Ebazpen proposamena egiten den unean, zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

f) Nafarroako Gobernuari proiektuaren zabalkundea egiten laguntzea, Nafarroako iritzi publikoa garapenerako lankidetzaren arloan sentsibilizatzearen.

g) Proiektuaren zabalkundea eta publizitatea egiten den guztietan dirulaguntza nork eman duen adieraztea. Zabalkunderako lan idatzi edo grafikoetan, Nafarroako Gobernuaren logotipoa erabili beharko da, Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuetan adierazi bezala (otsailaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuak aldatu zuen). Logotipo horrek dirulaguntzaren onuradun diren entitateen logotipoaren tamaina berean eta berdinean ikusteko moduan agertu beharko du. Nolanahi ere, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak uztailaren 2an emandako 212/2010 Foru Aginduren 4.b) artikuluan xedatutakoa bete beharko da; foru agindu horren bidez, gizarte zerbitzuen, garapenerako lankidetzaren, familiaren, haurren eta kontsumoaren arloetan diruz lagundutako edo kontratatutako zerbitzu eta zentroetan egiten diren programa, jarduerak, inbertsio eta jarduketetan Nafarroako Gobernuaren partaidetza zabaltzeko arauak ezarri ziren.

h) Edozein euskarritan erreproduzitzen ahal diren eta jendaurrean banatzeko, alokatzeko edo saltzeko diren miza guztietako materialak sortuz edo argitaratuz gero, Lege Gordailuaren, Jabetza Intelektualaren eta ISBN- ISSNren eskakizunak bete beharko dira, bidezkoa denaren arabera.

i) Organo emaileak egiten dituen egiaztapenak eta kontrol organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapenak eta kontrol finantzarioak onartzea eta jarduketak horietan eskatzen zaizkien argibide guztiak ematea. Berezik, hamabosgarren oinarrian aipatzen diren gastuen egiaztagiari organo emailearen esku uztea, eskatuz gero. Horrela egin ezik, ulertuko da arau-hauste bat izan dela, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 42. artikuluko 1.1.f) apartatuaren kontrakoa, hain zuzen.

j) Jasotako diruaren erabilerrari buruzko frogagiriak gordetzea azken txostena aurkeztu eta lau urtez, egiaztatze eta kontrol lanak egin ahal izateko.

k) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan eta deialdi honen hemeretzigarren oinarrian aipatutako kasuetan jasotzen diren funtsak itzultzea, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak uztailaren 2an emandako 212/2010 Foru Aginduren 8.2 artikuluan ezarritako ondorioekin, behar izanez gero. Foru agindu horren bidez, gizarte zerbitzuen, garapenerako lankidetzaren, familiaren, haurren eta kontsumoaren arloetan diruz lagundutako edo kontratatutako zerbitzu eta zentroetan egiten diren programa, jarduerak, inbertsio eta jarduketetan Nafarroako Gobernuaren partaidetza zabaltzeko arauak ezarri ziren.

Hemezortzigarrena.—Gardentasun betebeharra.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3.c) artikuluan aipatutako entitate pribatuak behartuak daude gardentasun betebeharra betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, edo jasotako laguntzak edo dirulaguntzak beren urteko diru-sarrera guztien %20 edo gehiago badira eta, gutxienez, 5.000 euro.

Aipatu diren inguruabarrak gertatzeagatik gardentasun betebeharra duten entitate onuradunek jarraian adierazten den informazioa eman beharko dute hilaibeteko epean, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita:

- Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaketa.
- Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda.
- Entitateak aurreko urtean kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuz kontzeptu. Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan dagoena izan da.
- Gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetan ematen den dedikazioaren araubidea.
- Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

Informazio hori entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta aurkeztuko da, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorreko Elektronikoen bide telematikoa erabiliz, ahal dela Nafarroako atarian argitaratutako deialdiaren fitxan "Tramitar" aukera baliatuz, eta dirulaguntza kudeatzen duen administrazio unitateari bidaliko zaio.

Entitateak ez badu gardentasun betebeharrak, aurreikusitako egoerak gertatzen ez direlako, horren gainera aitortzea aurkeztu beharko du.

Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatuko beharko dirulaguntza bakoitzarako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira. Horretarako, entitateak identifikatu beharko du Foru Komunitateko Administrazioaren zein organoren aurrean aurkeztu zuen, eta noiz.

Betebehar hori bete ezean, emandako dirulaguntza ez da ordainduko, ezta aurrerakinak ere, eta kobratutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35.1.c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Aurrekoa galarazi gabe, errekerimendua eginez gero, entitate onuradun guztiak behartuak daude unitate kudeatzaileari behar den informazio guztia ematera hamar eguneko epean, frogatzeko betetzen dituztela Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen II. tituluaren jasotako gardentasun betebeharrak.

Errekerimenduan emandako epea bukatzen bada eskatutakoa bete gabe, erabakitzen ahal da hertsapen isunak ezartzea, 500 eurotik 5.000 eurora bitartekoak, entitate onuradunari ohartarazpena egin ondoren eta entzunaldia emanda. Isuna hamabost egunetik behin errepikatuko da, errekerimendua bete arte. Isunaren zenbateko osoa ez da izan dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko bost baino handiagoa. Zenbatekoa zehazteko, ez-betetzearen astuntasuna eta proportzionaltasunaren printzipioa hartuko dira kontuan.

Hemeretzigarrena.—Ez-betetzeak.

1. Dirulaguntzaren ordainketa osoa edo partziala jasotzeko eskubidea galduko da edo, kasu bada, hartutako zenbatekoa osorik edo partez itzuli beharko da baldin eta proiektua gauzatzen ez bada, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan aipatzen diren zergatikoak gertatzen badira edo deialdi honetan berariaz aipatzen diren betebeharrak betetzen ez badira. Legez ezarritako kasuetan, gainera, bidezkoa izan da dirulaguntza ordaindu zenetik itzuli behararen gainera ebazpena ematen den arte sortutako berandutze-interesak ordaintzeko eskatzea.

2. Aurrekoa gorabehera, entitate onuradunak ia osorik betetzen baditu dagozkion betebeharrak eta frogatzen badu bere konpromisoak betetzeko jarrera garbia duela, proportzionaltasun-printzipioari jarraituz zehaztuko da itzuli beharreko zenbatekoa edo dirulaguntzaren azken ordainketatik gutxitu beharrekoa, ikusita dirulaguntza emateko ezarritako baldintzetatik zenbat eta noraino bete diren.

3. Ez-betetzeak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 14.1.p) artikuluan ezarritakoaren arabera neurtuko dira. Honako hau hartuko da kontuan:

—Esku-hartzea noraino bete den, arlo teknikoari eta aurrekontuari dagokienez.

—Zenbat aldaketa egin diren, eta nolakoak, aurretik baimen administratiboa izan gabe.

–Zenbat aldaketa ez-funtsezko egin diren, eta nolakoak, bidezko arrazoirik izan gabe.

–Justifikazio epetik kanpo aurkezten denean zerbait, zenbat egun iragan diren. Dagokion dokumentazioa ez bada aurkezten justifikazioa egiteko epeetan, partzialetan zein amaierakoan, baina bai aurkezten bada horien ondorengo 5 egunetan, honako hau izan da atzerapenaren penalizazioa: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa %5 murriztuko da.

4. Aurreko ataletan xedatutakoa gorabehera, arau-hauste eta zehapenei dagokienez, bete beharko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 42. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa, baita Nafarroako Garapenerako lankidetzari buruzko 5/2001 Foru Legearen VII. kapituluaren xedatutakoa ere, edo, bestela, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen xedatutakoa. Dirua itzultzea eskatzeko prozedura ebatzi beharko da hura hasten denetik 12 hilabeteko epean.

Hogeigarrena.–Bidezko diren administrazio errekurtsioak.

1. Deialdi honen eta oinarri arautzaileen kontra bidezkoa da gora jotzeko errekurtsioa aurkeztea, Nafarroako Gobernuari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen xedatutakoarekin bat.

2. Aplikazio egintzen aurka eta ebazpenaren aurka (berariazkoa edo ustezkoa) gora jotzeko errekurtsioa aurkezten ahal da, Eskubide Sozialetako kontseilariari zuzendua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen xedatutakoarekin bat.

Hogeita batgarrena.–Aplikatu beharreko araudia.

Oinarri arautzaile hauetan xedatzen denaz gain, aplikatzekoak izanen dira Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen xedapenak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearenak.

II. ERANSKINA

1.–A modaliterako balorazio irizpideak: sentibilizazio ekintzak.

a. Erakundearen egokitasuna (200 puntu arte).

a.1. Nafarroan duen ezarpena eta gaitasun operatiboa (170 puntu arte):

Sentsibilizazio lana dokumentu estrategikoetan txertatzea (20 puntu arte).

–Garapenerako hezkuntzako eta sentsibilizazioko jarduketak (40 puntu arte).

–Garapenerako lankidetzaren arloko jarduketak (30 puntu arte).

–Boluntarioak, laguntzaileak eta bazkideak Nafarroan (60 puntu arte).

–Batasunean bildutako entitateen kopurua (20 puntu arte).

a.2. Eranskin honen 3. atalean adierazitako zeharkako ikuspegiak entitate eskatzailean txertatzea (30 puntu arte).

Entitateen batasunen kasuan, hori dena batasunaren ordezkarientzat baloratuko da; batasuna hiru entitatek osatzen badute, 1,2rekin biderkatuko da, eta 1,4rekin gainerako kasuetan, 200 puntu arte, gehienez ere.

b. Esku-hartzearen kalitate teknikoa (gehienez 800 puntu).

b.1. Xede-populazioa: hautatzeko irizpideak; ezaugarriak, zenbatzea, zein herritan esku hartzen den (50 puntu arte).

b.2. Lankidetzarako beste eragile batzuekiko ea agente sozialekiko koordinazioa (25 puntu arte).

b.3. Esku-hartzearen barne koherentzia (200 puntu arte):

–Helburuen, emaitzen eta jardueren analisia (100 puntu gehienez).

–Adierazleen eta egiaztatze bideen egokitasuna eta zehaztasuna (50 puntu gehienez).

–Proiektuaren exekuzioan aipatzen diren entitate publiko eta pribatuaren abalak (25 puntu arte).

–Arriskuen eta kanpoko faktoreen analisia (25 puntu arte).

b.4. Metodologia (125 puntu arte):

–Jardueren aniztasuna eta zehaztasuna (50 puntu arte).

–Metodologiaren berrikuntza eta didaktika (75 puntu arte).

b.5. Edukiaren egokitasuna (150 puntu arte):

–Nola egokitzen den eranskin honen 3. atalean adierazitako zeharkako ikuspegiatara (50 puntu arte).

–Nola egokitzen zaion deialdiaren xedeari, eta edukiaren analisi orokorra (100 puntu arte).

b.6. Baliabideak (150 puntu arte):

–Giza baliabideen egokitasunari buruzko analisia (50 puntu arte).

–Aurrekontuaren analisia; kostuaren eta jardueren arteko erlazioa eta gastuaren partida bakoitzaren beharra (100 puntu arte).

b.7. Ebaluazio eta jarraipen prozesua (50 puntu, gehienez).

b.8. Esku-hartzearen trinkotasun edo sendotasun orokorra (50 puntu arte).

2.–B eta C modalitateak baloratzeko irizpideak: Garapenerako hezkuntza proiektuak.

a. Erakundearen egokitasuna (200 puntu arte).

a.1. GGKErako:

a.1.1. Nafarroan duen ezarpena eta gaitasun operatiboa (135 puntu arte):

–Garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren arloko jarduketak (50 puntu arte).

–Garapenerako lankidetzaren arloko jarduketak (25 puntu arte).

–Boluntarioak, laguntzaileak eta bazkideak Nafarroan (60 puntu arte).

a.1.2. Gaitasun estrategikoa. Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa nola txertatzen diren dokumentu estrategikoetan (35 puntu arte).

a.1.3. Eranskin honen 3. atalean adierazitako zeharkako ikuspegiak entitate eskatzailean txertatzea (30 puntu arte).

Entitateen batasunen kasuan, hori dena batasunaren ordezkarientzat baloratuko da; batasuna hiru entitatek osatzen badute, 1,2rekin biderkatuko da, eta 1,4rekin gainerako kasuetan, 200 puntu arte, gehienez ere.

a.2. Unibertsitateentzat:

a.2.1. Gaitasun operatiboa (100 puntu gehienez):

–Garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren arloko jarduketak (70 puntu arte).

–Garapenerako lankidetzaren arloko jarduketak (30 puntu arte).

a.2.2. Gaitasun estrategikoa. Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa nola txertatzen diren dokumentu estrategikoetan (70 puntu arte).

a.2.3. Eranskin honen 3. atalean adierazitako zeharkako ikuspegiak entitate eskatzailean txertatzea (30 puntu arte).

b. Esku-hartzearen kalitate teknikoa (gehienez 800 puntu).

b.1. Xede-populazioa: hautatzeko irizpideak; ezaugarriak, zenbatzea, eragin biderkatzailea, zein herritan esku hartzen den (50 puntu arte).

b.2. Esku-hartzearen barne koherentzia (175 puntu arte):

–Helburuen analisia, ikaskuntzaren emaitzak (ezagupenak, jarrerak, trebetasunak) eta jarduerak (110 puntu arte).

–Adierazleen eta egiaztatze bideen egokitasuna eta zehaztasuna (40 puntu gehienez).

–Arriskuen edo kanpoko faktoreen analisia (25 puntu arte).

b.3. Metodologia (100 puntu arte):

–Jardueren aniztasuna eta zehaztasuna (50 puntu arte).

–Metodologiaren berrikuntza eta didaktika (50 puntu arte).

b.4. Edukiaren egokitasuna (175 puntu arte):

–Nola egokitzen den eranskin honen 3. ataleko zeharkako ikuspegiatara (50 puntu arte).

–Proposamenaren edukiaren analisia (125 puntu arte):

• Irakasle, monitore, hezitzaile eta hezkuntzako beste eragile batzuen prestakuntza eta aholkularitza (25 puntu arte).

• Urteko edo ikasturteko lan etengabea (25 puntu arte).

• Proposamena nola txertatzen den ikastetxearen edo esparru ez-formaleko entitatearen programan (25 puntu arte).

• Laguntza teknikoa eta aholkularitza exekuzioan (25 puntu arte).

• Hedadura komunitatean (25 puntu arte).

b.5. Baliabideak (150 puntu arte):

–Giza baliabideen egokitasunari buruzko analisia (50 puntu arte).

–Aurrekontuaren analisia; kostuaren eta jardueren arteko erlazioa eta gastuaren partida bakoitzaren beharra (100 puntu arte).

b.6. Sareko lana eta koordinazioa (50 puntu arte).

b.7. Ebaluazio eta jarraipen prozesua (50 puntu, gehienez).

b.8. Esku-hartzearen trinkotasun edo sendotasun orokorra (50 puntu arte).

Nafarroako Gobernuak azken hiru urteetako batean finantzatu badu esku-hartzea, jarraitzearen bidezkotetasuna baloratuko da, eta, jarraitzearen alde egiten bada, b ataleko puntuazioa 1,05 koefizientearekin biderkatuko da, gehienez ere 800 puntu arte.

3.-Zeharkako ikuspegiak.

1. Giza garapenaren ikuspegia: giza garapena prozesu bat da, zeinaren bidez handitzen baitira gizaki guztien aukerak eta hautabideak, bai egungo belaunaldientzat, bai gerokoentzat. Ikuspegi horren arabera, pobreziaaren aurkako borroka da garapenerako lanikidetzaren helburu nagusia, eta aitoritzen du gizakia garapenaren erdigunean dagoela eta askotariko beharrak dituela: biziraupena, babesa, afektua, adimena, sormena, askatasuna, aisia, parte-hartzea, identitatea, etab.

2. Eskubideetan oinarritutako ikuspegia: osagarria da, eta giza garapenaren ikuspegia indartzen du; garapenaren helburuak lortzea giza eskubideak goitik behera betetzearekin lotzen du; haien unibertsaltasuna du abiaburu, baita haien banaezintasuna eta interdependentzia ere.

3. Garapen jasangarriaren ikuspegia: horrek esan nahi du esku-hartzeek ingurune baliabide naturalak errespetatuko dituztela, egungo zein etorkizuneko beharrak asetzeko moduan, gizakiaren bizi kalitatea hobetuz eta aurrerapenak eta garapenak ingurumena andeatzea eta herritarren txirotasun indizeak handitzea sailhestuz. Garapen mota honek egungo beharrak asetzen ditu, kalterik egin gabe etorkizuneko belaunaldiak beren premiei aurre egiteko gaitasunari. Zentzu zabalean, elkar indartu behar duten lau zutabe ditu oinarri: ekonomikoa, soziala, ingurumenarena eta munduaren gobernantzarena.

4. Parte-hartzearen eta antolaketa komunitarioaren ikuspegia: parte-hartzea bultzatzea ezinbesteko elementua da giza garapenean aurrera egiteko, herritartasuna bete-betean erabiltzeko eta giza izaerari dagozkion eskubideak baliatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da gizarte zibilaren erakundeak indartzea.

5. Genero ikuspegia eta garapena: genero berdintasuna giltzarria da garapenaren helburu nagusiak lortzeko. Nazio Batuen arabera, halakotzat jotzen dira emakumeak ahalduzko helburuak, bai eta arlo sozial eta ekonomikoan eta eskubide zibil eta politikoetan genero desparekotasunak zuzentzekoak ere. Ikuspegi honi jarraikiz, baloratu behar da zer ondorio dituzten, gizonentzat eta emakumeentzat, eremu eta maila guztietan planifikatzen diren ekintzek.

F2006124

206E/2020 EBAZPENA, ekainaren 15ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako artisautza enpresen inbertsioetarako dirulaguntzen 2020ko deialdia. DDBN identifikazioa: 510941.

Artisautza sektorearen berezitasuna kontuan izanda, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiaren ustez ezinbestekoa da hainbat neurri hartzea sektoreko enpresa txiki eta ertainek egiten dituzten inbertsioei laguntzeko, haien azpiegiturak eta ekipamendua hobetearren, enpresa horien lehiakortasuna bultzatzeko.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak norgehiagokako araubideari jarraikiz emanen dira, eta, hortaz, kasuan kasuko baimenaren aplikazioak zehaztuko du dirulaguntzak emateko hurrenkera.

Adierazitakoarekin bat, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32. artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako artisautza enpresen inbertsioetarako dirulaguntzen 2020ko deialdia onestea.

2. Deialdiaren oinarri arautzaileak onestea. Ebazpen honen eranskinean jaso dira.

3. 25.000 euroko gastua baimentzea dirulaguntza deialdi honen ondoriozko konpromisoak betetzeko; 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako partida honen kargura finantzatu da: 830001-83130-7701-431400, "Artisautzako enpresa txiki eta ertainentzako dirulaguntzak. Inbertsioak tailerretan".

4. Ebazpen hau eta beronen eranskina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5. Deialdi honen kontra, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztzen ahalko zaio Garapen Ekonomiko eta Enpresarietako kontseilariari, argitaratu eta biharamenetik hasita hilabeteko epean.

Iruñean, 2020ko ekainaren 15ean.—Turismo, Merkataritza eta Kontsumo zuzendari nagusia, Maitena Ezkutari Artieda.

ERANSKINA

Nafarroako artisautza enpresen inbertsioetarako dirulaguntzen 2020ko deialdiaren oinarri arautzaileak

1. oinarria.—Xedea.

Nafarroako artisautza enpresei dirulaguntzak emateko araubidea zehaztea dute xede oinarri arautzaile hauek, haien lehiakortasuna bultza-

tzearren. Horretarako, inbertsioak egiteko laguntzak emanen dira, artisau tailerrak modernizatu eta egokitzeko eta haien ekipamendua hobetzeko.

Laguntza honen xedea da artisautzako enpresak eta haien produktuak bultzatzea, sektorea dinamizatzeko eta suspertzeko; izan ere, beharra dago artisautzako jarduerak bizirik mantentzeko eta dinamizatzeko, aberastasu kulturala ematen baitio gizarte guztiari, eta Nafarroako ondare ez-materialaren funtsezko atal bat baita. Sustatu nahi da artisautza behar den bezala aintzatestea, eta aitortzea hari loturik dagoen tradizioa eta kalitatea: produktu jatorrak, bakarrak eta originalak diseinatu eta eskuz egiten dira, beste produktu mota batzuk ez bezala, zeinak ekoizten baitira era industrialean, katean edo mekanizazioa baliatuz.

2. oinarria.—Aurrekontuko zuzkidura.

25.000 euroko kreditua baimendu da deialdi honen ondoriozko konpromisoerantzuteko, honela zehaztuta, diruz laguntzen ahal diren jarduketa moten arabera:

JARDUKETA MOTA	ZENBATEKOA
Artisau tailerrak instalatu, lekuz aldatu, berritu edo hobetzea	10.000 euro
Artisau tailerren ekipamendua, COVID-19aren ondoriozko inbertsioak eta online dendak ezartzea.	15.000 euro

Kreditu erabilgarria gelditzen bada jarduketa mota bateko eskaera guztiei erantzun ondoren, beste jarduketa motako eskaerei erantzuteko erabiliko da.

3. oinarria.—Inbertsioak gauzatzeko epea.

Inbertsioak 2019ko azaroaren 12tik 2020ko azaroaren 9ra gauzatu beharko dira, biak barne. Ondorio horietarako, inbertsioak egin direla ulertuko da epe horren barrunean fakturatu eta ordaindu direnean.

4. oinarria.—Enpresa onuradunak.

1. Betebehar orokor hauek betetzen dituzten enpresa txiki eta ertainek jasotzen ahalko dituzte laguntzak:

1.1. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debeku egoeretatik batean.

Dirulaguntza eskatzeak berekin dakar baimena ematea organo emaileak zuzenean eskuratu dituzten eskatzaileak tributu betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duten ziurtagiri telematikoak. Eskabidean interesdunak horri berariaz uko egiten badio, berak aurkeztu beharko ditu aipatutako betebeharrak egunean dagoela adierazten duten ziurtagiriak.

1.2. Inolako administrazio-zehapen irmorik edo kondena-epai irmorik betetzen ez egotea sexu- edo genero-diskriminaziotzat hartutako lan praktikak egiteagatik edo onartzeagatik, eta ez egotea arrazoi horiek direla-eta ezarritako epai edo zehapen bat betetzeko zain.

1.3. Pertsona fisiko edo juridikoaren elkarte bat eratzen duten eskatzaileek edo Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 8.3 artikuluko egoeraren batean daudenek ordezkari bat edo ahalduz bakar bat izendatu beharko dute, onuradun gisa dagozkien betebeharrak betetzeko adina ahalmen dituenak.

Kasu horietan, berariaz adieraziko dira dirulaguntzaren eskabidean zer konpromiso hartzen dituen bere gain batasuneko kide bakoitzak. Halaber, laguntza ematen duen ebazpenean adieraziko da kide bakoitzak aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa. Kideok ere onuraduntzat joko dira.

Gainera, berariazko beharkizun hauek bete beharko dituzte:

1.4. Nafarroako Artisautza Enpresen Erregistroan izena emanda egotea deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik. Erregistro hori Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiari atxikirik dago.

1.5. Dirulaguntzaren eskaera aurkeztzen den egunean Nafarroako artisautza enpresa bat dela egiaztatzen duen txartela indarrean izatea. Artisautza enpresa izateko eskatzen diren betebeharrak, betiere, bete beharko dira deialdiaren arabera diruz lagungarriak diren jarduerak egiteko ezarritako epe osoa bitartean. Horrenbestez, artisautza enpresek betebehar horiek betetzen dituzten epean egindako inbertsioak baizik ez dira onartuko.

1.6. Hala badagokio, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik aurkeztu izana artisautza enpresaren izaera berritzeko eskabidea.

2. Eskabidean dagoen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez frogatuko da eskatutako baldintza orokorrak betetzen direla, eta laguntzak kudeatzen dituen organoak ziurtatuko du berariazko baldintzak betetzen direla.

5. oinarria.—Jarduketa diruz lagungarriak eta laguntzaren zenbatekoa.

1. Jarduketa diruz lagungarriak.

1.1. Honako jarduketa hauek diren inbertsioak dira diruz lagungarriak:

a) Artisau tailerrak instalatu, lekuz aldatu, berritu edo hobetzea.

Lehendik dauden artisau tailerretan zein lokal berrietan horrelako tailerrak ezartzeko egiten diren obrek eta egokitze jarduketek jasotzen ahalko dute dirulaguntza, beharrezkoak badira artisautzan jarduteko.

Etxebizitza partikularrean eta artisau tailerrean eragina duten obren kasuan, artisautzako jardura profesionalerako diren eta artisautzarekin zuzenean eta bete-betean lotuta dauden eraikin eta inbertsioen zati proportzionalak bakarrik jasoko du dirulaguntza.

Kontzeptu diruz lagungarrien artean, proiektu teknikoaren prestaketa eta obra zuzendaritza sartzen dira. Obrek etxebizitza partikularrean ere eragina izanez gero, kontzeptu horien zati proportzionala bakarrik onartuko da, hau da, artisau tailerrari egotzen zaion inbertsioari dagokiona. Kontzeptu horientzat, inbertsio onargarrien aurrekontuaren %20 onartuko da gehienez, diruz lagungarria izateko. Ehuneko hori bera izanen da kontzeptu horientzatko dirulaguntza ordaintzeko orduan aplikatuko dena.

b) Artisau tailerren ekipamendua.

Artisautzan aritzeko berariazkoak, premiazkoak eta ezinbestekoak diren makinak, tresnak eta lanabesak eskuratu, muntatu eta instalatzeko emanen da dirulaguntza.

c) Inbertsioak COVID-19arengatik.

Diruz lagungarriak izanen dira artisau tailerra egokitzeko inbertsioak, beharrezkoak badira jardura egokitzeko osasun agintariak emandako gomendio eta neurrietara, koronabirusak eragindako osasun krisia dela-eta; esaterako, babes itxurak instalatzea, hesi eramangarriak jartzea, desinfekzioarako ekipamendua erostea, etab.

d) Online denda ezartzeko inbertsioak.

Honako hauek diruz lagungarriak izanen dira: merkataritza elektronikoko (e-commerce) webguneak garatzea eta ezartzea, edo lehendik dauden webguneak egokitzea funtzio hori txertatzeko.

Merkataritza elektronikoa abian jartzea:

–Sistema estandarretan garatu beharko da, eta gailu mugikorretara egokitua egon beharko du.

–B2C merkataritza elektronikokoaren plataformak aukera eman beharko dute enpresa eskatzaileak merkatuan jartzen dituen produktu edo zerbitzuak kontratatzeke, eta online ordaintzen transakzioak denbora errealean egiteko.

1.2. Kontzeptu hauek ez dira diruz lagungarriak:

–Edozein eratako zergak, lizentziak, baimenak edo antzeko gastuak.

–Lokala edo tailerra erosteko inbertsioak.

–Dirulaguntza eskatzen duen enpresak berak egindako lanak, ezta eskuratzailerak bera denean aktiboen saltzailea edo jarduketaren emalea ere, edo antzeko kasuak, non autofakturazioa izan daitekeen.

–Ondasun suntsigarriak eta lehengaiak eskuratzeko, edo produktuaren elaborazioan parte hartzen duten gastuak.

–Bigarren eskuko makineria eta ekipamendua erostea.

–Artisautza prozesuarekin zerikusia ez duten altzari, ekipamendu edo tresnak erostea, non ez diren hartarako guztiz ezinbestekoak.

–Etxebizitza partikularrean eta artisau tailerrean eragina duten obren kasuan, artisautzako jardura profesionalerako ez diren eta artisautzarekin zuzenean eta bete-betean lotuta ez dauden eraikin eta inbertsioen zati proportzionalari dagokion gastua.

–Etxebizitza partikularrean eta artisau tailerrean eragina duten obren kasuan, proiektu teknikoaren idazketaren eta obra zuzendaritzaren zati proportzionalari dagokion gastua, artisau tailerrari ezin egotzi zaion inbertsioagatik.

–Ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, tabletak, telefono mugikorrak.

2. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

2.1. Diruz lagungarria den inbertsioaren %50 (BEZik gabe) izanen da dirulaguntzaren zenbatekoa. Jarduketa mota bakoitzerako, honako hau izanen da gehieneko zenbatekoa:

–Artisau tailerrak instalatu, lekuz aldatu, berritu edo hobetzea: 5.000 euro.

–Artisau tailerren ekipamendua: 3.000 euro.

–Inbertsioak COVID-19arengatik: 2.000 euro.

–Online denda ezartzeko inbertsioak: 2.000 euro.

2.2. Jarduketa mota bakoitzerako, honako hau izanen da gutxieneko zenbatekoa (BEZik gabe):

–Artisau tailerrak instalatu, lekuz aldatu, berritu edo hobetzea: 6.000 euro.

–Artisau tailerren ekipamendua: 500 euro.

–Inbertsioak COVID-19arengatik: 500 euro.

–Online denda ezartzeko inbertsioak: 1.000 euro.

6. oinarria.—Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

1. Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

2. Eskaerak nola aurkeztu.

a) Pertsona juridikoen kasuan eta pertsona fisikoen edo juridikoen elkarleen kasuan edo Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 8.3 artikuluko kasuetako batean.

Eskaerak telematika bidez aurkeztuko dira nahitaez, Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atariaren tramiteen katalogoko fitxa erabiliz: https://www.navarra.es/home_es/Temas/Empleo+y+Economia/Comercio+y+arte-sania (hemendik aitzina, laguntzaren fitxa). Fitxa horretan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Orkor Elektronikoan sartzeko esteka bat izanen da.

Eskaera aurrez aurre aurkeztu bada, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko eta baliabide elektronikoen bidez aurkezteko. Ondorio horietarako, eskaeraren aurkezpen eguna zuzenketaren eguna dela ulertuko da.

b) Pertsona fisikoen kasuan.

Ahal dela, eskaerak modu telematikoa aurkeztuko dira, a) letran adierazitakoari jarraikiz, edo, hala ez bada, aurrez aurre, Iruñeko Navarrerria kaleko 39an dagoen Erregistro Bulegoan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako erregistroetan.

3. Eskaerak laguntzaren fitxan ageri den inprimakia erabiliz egiten dira eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiari zuzenduko zaizkio.

4. Laguntzak eskatzeko behar diren agiriak.

Honako agiri hauek aurkeztu behar dira (eskaera telematikoa bada, dokumentu bereizitan eskaneaturik eta behar bezala identifikaturik):

4.1. Enpresa eskatzailearen gaineko dokumentazioa.

Eskaera egiteko inprimakiak honako aitorten hauek ditu:

a) Erantzukizunpeko adierazpen bat, frogatzeko betetzen direla 4.1. oinarrian eskatutako baldintza orokorrak.

b) Erantzukizunpeko adierazpen bat, jasotako beste dirulaguntza batzuei eta de minimis laguntzei buruzkoa (12. oinarrian aipatzen dira).

c) Transferentzia bidez kobratzeko eskabidea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari zuzendua (Diruzaintza Atala), enpresa eskatzaileak lehenbizikoz kobratzen baditu laguntzak, edo abonatzeko kontua aldatu nahi izanez gero.

4.2. Jarduketa diruz lagungarriei buruzko dokumentazioa.

a) Memoria teknikoa eta ekonomikoa, 2019ko azaroaren 12tik 2020ko azaroaren 9ra arteko epean egindako edo aurreikusitako jarduketak deskribatutako dituen eta honako alderdi hauen gaineko informazio zehatza bilduko duena:

–Egindako edo aurreikusitako inbertsioen kontzeptuak eta zenbatekoak, exekuzioaren faseak, zer egoeratan dauden dirulaguntza eskatzen den unean eta haiek gauzatzeko aurreikusten den egutegia.

–Zergatik den komenigarria inbertsio horiek egitea eta noraino diren baliagarriak artisautza produktuak prestatzeko prozesuan.

b) Fakturen kopiak (inbertsioak dagoeneko egin badira) edo aurrekontuak, proiektuak edo proformako fakturak, aurreikusitako inbertsioak justifikatzen dituztenak; ez dira inoiz onartuko eskatzailearen uste edo balorazioetan oinarritzen diren gastu zenbatespenak.

c) Diruz lagungarria den gasturen bat 30.000 eurotik gorakoa bada, obra gauzatzeko kostuaren kasuan (artisau tailerrak instalatu, lekuz aldatu, berritu edo hobetzea), edo 12.000 eurotik gorakoa, aholkularitza edo laguntza enpresek ekipo-ondasunak hornitzeko edo zerbitzuak emateko kasuetan (artisau tailerren ekipamendua, COVID-19aren ondoriozko inbertsioak eta online dendak ezartzea), eskatzaileak frogatu beharko du hornitzailea efizientzia eta ekonomia irizpideei jarraituz hautatu duela, gutxienez hiru eskaintza aurkeztuz eta hautatutakoa aukeratzeko arrazoiak emanez eskaera egiteko inprimakian dagoen "Hornitzailearen aukeraketaren justifikazioa" atalean.

Eskatzaileak ez dira beharturik egonen hiru eskaintzak aurkezttera, baldin eta dirulaguntzaren xedeko gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan behar adina entitate hornitzaile edo zerbitzu-emale ez badaude edo dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada gastua. Edonola ere, alderdi horiek aipatu inprimakian frogatu beharko dira.

Eskaintza merkeena hautatzen ez bada eta, laguntzak kudeatzen dituen organoaren ustez, justifikazioa nahikoa ez bada, eskaintza merkeenaren zenbatekoa baizik ez da diruz lagunduko.

4.3. Jarduketa baloratzeko dokumentazioa.

Diruz lagundu behar den jarduketa baloratzeko 7. oinarriko 3. irizpideari jarraituz ("Artisau tailerra jendeari irekitzea, bisitariei harrera egiteko"), aurkeztu beharko dira oinarri horretako 2. apartatuko c) letran adierazitako agiriak. Ezin izanen da irizpide hori baloratu baldin dokumentazio hori ez bada aurkeztu dirulaguntza eskaerarekin batera.

5. Eskaerak betebeharrak horiek betetzen ez baditu edo osatugabea bada, eskatzaileari errekerimendua eginen zaio, 10 egun baliaduneko epean zuzen dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaera bertan behera uzten duela ulertuko dela eta espedienteak artxibatzeko ebazpena emanen dela.

7. oinarria.—Dirulaguntzak emateko irizpideak.

1. Laguntza hauek norgehiagokako prozeduraren bidez emanen dira. Hartara, aurkeztutako eskaerak konparatuko dira, jarduketa mota bakoitzeko eskaeren artean lehenetsuna ezartzeko, oinarri honetan ezarritako balorazio irizpideekin bat.

Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, balorazio handiena eskuratzeko duten eskaerei 5. oinarrian ezarritako laguntza-intentsitatea aplikatuko zaie, jarduketa bakoitzerako aurrekontuan erabilgarri dagoen kreditua agortu arte. Kreditu erabilgarria gelditzen bada jarduketa mota bateko eskaera guztiak erantzun ondoren, beste jarduketa motako eskaerei erantzuteko erabiliko da, behar izanez gero.

Aurrekontuetan behar adina diru ez egoteagatik kontuan hartzen ez diren eskaerak ezetsitatzeko joko dira. Hala ere, eskatzailearen bati ezin bazaio osorik eman dagokion laguntza, kreditu aski ez dagoelako, 10 eguneko epea emanen zaio adierazteko ados dagoela dirulaguntza txikiagoa jasotzearekin. Berariaz uko eginez gero, hurrengo eskatzailearengana joko da, lehenetsun hurrenkerari jarraituz.

Ez da inoiz 250 eurotik beherako dirulaguntzarik emanen.

2. Hauek dira eskaerak baloratzeko irizpideak:

a) 1. irizpidea. Enpresaren tamaina: Kontuan hartuko da enpresak bere eskaeran adierazi duen tamaina, eta puntuak honela emanen dira:

ENPRESAREN TAMAINA	PUNTUAK
Mikroenpresa	8
Enpresa txikia	4

b) 2. irizpidea. Kontuan hartuko da ea 2016., 2017., 2018. eta 2019. urteetan laguntzarik eskuratu den Nafarroako artisautza enpresen inbertsioetarako dirulaguntzen deialdietan. Honela emanen dira puntuak:

HARTUTAKO DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA	PUNTUAK
Ez zen dirulaguntzarik jaso	14
1.000 euro edo gutxiago	12
1.001 eurotik 2.000 eurora	10
2.001 eurotik 3.000 eurora	8
3.001 eurotik 4.000 eurora	6
4.001 eurotik 5.000 eurora	4
5.001 eurotik 6.000 eurora	2
6.000 eurotik gora	0

c) 3. irizpidea. Artisau tailerra jendeari irekitzea, bisitariei harrera egiteko. Artisau tailerrean bisita orduak egotea baloratzeko da, baita turistak, bisitariak eta bezeroak hartzeko aukera ematea ere. 2 puntu emanen dira ezarritako egutegi bat edo irekiera ordutegi argi, zehatz, egonkor eta egiaztagarri bat dagoenean, artisau tailerra urtean 20 egunez irekita egoteko bidea emanen duena, gutxienez. Hori frogatzeko, honako hauek aurkeztu ahal dira: agiriak, publizitate euskarriak, iragarkiak, artisautza enpresaren webgunea eta abar, salbu eta informazio hori Nafarroako Gobernuaren turismo webgunean eskuragarri badago (<https://www.turismo.navarra.es/eus/home/>).

3. Puntu berdinketa izanez gero, irizpide hauek aplikatuko dira bata besteari atzetik:

a) Nafarroako Artisan Enpresen Erregistroan lehenago inskribatu ziren eskatzaileak.

b) 2. irizpidean puntuaziorik altuena duten eskaerak.

c) Dirulaguntza eskaera aurkeztean inbertsio guztiak bukatuta zutuzten eskatzaileak.

8. oinarria.—Laguntza emateko prozedura.

1. Laguntzak kudeatzen dituen organoak (Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzua) aurreko oinarrian ezarritako balorazio irizpideei jarraituz ebaluatuko ditu eskaerak, eta organo eskudunari ebazpen proposamena igorriko dio, non adieraziko baita onuradunek dirulaguntza lortzeko betebeharrak guztiak betetzen dituztela.

2. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo zuzendari nagusiari dagokio dirulaguntzak emateari buruz ebazteko eskumena.

Ebazpenak honako hau jasoko du, gutxienez:

a) Onuradunen zerrenda, jarduketa mota bakoitzeko, lortutako puntuazioaren hurrenkeran 7. oinarriari jarraituz, laguntzen zenbatekoa adierazita.

b) Ezetsi beharreko eskaeren zerrenda, arrazoiak emanik. Haien artean, aurrekontuko baliabideen mugengatik baztertu direnak ere jasoko dira.

Ebazpena gehienez ere hiru hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita.

Ezarritako gehieneko epea bukatzen bada berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe, eskaerak administrazio isiltasunez ezetsi direla ulertzen ahalko da. Hala ere, organo eskuduna behartua dago laguntzak eman edo ukatzeko berariazko ebazpena eman eta jakinaraztera, oinarri hauetan xedatutakoari jarraituz.

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenen aurka, berariazkoak izan edo presuntziozkoak, enpresa eskatzaileek zilegi izanen dute gora jotzeko errekurtsioa jartzea, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari zuzendua, administrazio prozedura erkideari buruzko legerian xedatutakoari jarraituz.

3. Baldin eta dirulaguntza esleitu ondoren deklaratzeko bada dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu dela edo onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio eta, horren ondorioz, nahikoa kreditu askatzen bada, diru hori erabiltzen ahalko da, lehenik, zegoen dirulaguntza osorik kobratu ez duten eskaerei erantzuteko, eta ondoren, behar adina aurrekontu ez egoteagatik ezetsi ziren eskaerei erantzuteko.

Laguntza horiek noiz ematen diren kontuan hartuta, beste epe batzuk finkatzen ahalko dira diruz lagundutako jarduketa egiteko eta hura justifikatzeko, baina betiere 2020. urtearen barnean.

9. oinarria.—Inbertsioak justifikatzea.

1. Justifikazioa aurkezteko epea.

Noiznahi aurkeztuko da egindako jarduketaren justifikazioa, dirulaguntza ematen duen ebazpena jakinarazi ondoren, eta, beranduenez, 2020ko azaroaren 9an.

2. Justifikazioa aurkezteko modua.

Justifikazioa 6.2 oinarrian aurreikusitako modu berean aurkeztuko da, laguntzaren fitxan eskura daitekeen justifikaziorako berariazko inprimakia erabiliz, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiari zuzenduta.

Eskaerak telematika bidez aurkeztuz gero, laguntzen fitxaren bidez aurkeztuko dira; fitxa horretan lotura bat izanen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren dirulaguntzak justifikatzeko erregistrora.

3. Egindako inbertsioak frogatzeko dokumentazioa.

Honako agiri hauek aurkeztu behar dira (telematika bidez aurkeztuz gero, dokumentu bereizitan eskaneaturik eta behar bezala identifikaturik):

a) Azken txostena, egindako jarduketa guztiak xehetasunez deskribatzen dituen, bai eta hasieran aurreikusitako proiektuan izandako desbideratzeak ere, halakorik bada.

b) Aurkeztu diren fakturen zerrenda zehatza eta sailkatua, haiek diruz lagundutako kontzeptuen arabera elkartuta eta dataren arabera ordenatu eta zenbakituta, hornitzailea identifikatuta eta adierazita IFK, fakturaren zenbakia, igorpen eguna, BEZik gabeko zenbatekoa, guztira ordaindutakoa eta noiz eta nola ordaindu den, laguntzaren fitxan eskuragarri dagoen ereduarekin bat.

c) Egindako inbertsioei dagozkien fakturen kopia; fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera izanen dira fakturak, eta, betiere, dirulaguntzaren onuradunaren izenean jaulki beharko dira. Ez da beharrezkoa erantsitako fakturak aurkezteko eskaerarekin batera.

d) Bankuko egiaztagirak, fakturak ordaindu direla frogatzen dutenak.

Ordainketa onuradunak eginen du, banku bidezko transferentzia, bankuaren ordainagiria edo enpresaren kreditu edo zordunketa txartela erabiliz. Ordainagiritzat hartuko da finantza entitateak egin eta enpresaren kontuan zordundutakoa. Ez da onartuko eskudirutan egindako ordainketarik edo hartze-agiririk.

Ordainagiri bakoitzarekin batera, dagokion faktura aurkeztuko da.

e) Artisan tailerraren kanpoko nahiz barneko argazkiak, aurreko egoera eta jarduketak egin ondoko egiaztatzeak aukera ematen dutenak, edota diruz lagundutako aktibo finkoenak.

f) Dirulaguntza jaso dela agerian jartzeko erabili den webgunearen helbidea, edo, bestela, hori frogatzen duten agiriak edo argazkiak.

g) Etxebizitzan eragina duten obren kasuan, ziurtagiri tekniko bat aurkeztuko da, obra zuzendaritzak edo horren parekoak emana, frogatzeko egindako inbertsioetatik zer zenbateko egozten zaion artisau tailerrari.

h) Adierazpena, dirulaguntzaren xedeko jardueren finantzaketari buruz: adierazi behar dira, dirulaguntza honetaz gain, jarduketak finantzatu dituzten beste funts batzuen zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa (funts berekiak, bestelako baliabideak edo bestelako dirulaguntzak). Aitorpen hori justifikazio inprimakian berean egiten da.

10. oinarria.—Dirulaguntza ordaintzea.

Frogagiriak aztertuta, Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuak ordainketa egiteko ebazpenaren proposamena igorriko dio Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiari, eta txosten bat gehituko zaio, frogatzen duena entitate onuradunak betetzen dituela dirulaguntza kobratzeko eskubidea ematen duten betebeharrak guztiak.

Ordaintzeko ebazpena 2020ko abenduaren 31 baino lehen emanen da.

11. oinarria.—Onuradunen betebeharrak eta horiek ez betetzearen ondorioak.

1. Dirulaguntzak hartzen dituzten enpresek betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Dirulaguntzaren esleipena jakinarazten zaienetik hilabete pasatu baino lehen dirulaguntzen onuradunen gardentasun betebeharrari buruzko aitorpena aurkeztea (aitorpen hori irailaren 11ko 59/2013 Dekretuak arautzen du).

Foru dekretu horren 4. artikuluan eskatzen den informazioa aurkeztu ezean, ezin izanen da ordaindu onartutako dirulaguntza.

b) Diruz laguntzen diren inbertsioak oinarri hauetan ezarritako epeetan egitea eta justifikatzea.

c) 2021eko otsailaren 1a baino lehen abiaraztea dirulaguntzaren xede diren inbertsioak, edo, kasua bada, artisau tailerra martxan jartzea.

d) Laguntzak kudeatzen dituen organoari jakinaraztea emandako dirulaguntzari uko egiten zaiola, baldin eta diruz lagundutako jarduketa ez bada gauzatu behar 3. oinarrian horretarako ezarritako epean.

e) Baimena eskatzea diruz lagundutako inbertsioan aldatuta funtsezkoak egiteko. Eskatza behar bezala frogatu beharko da, eta aldatetarik egin aurretik aurkeztu beharko da.

f) Laguntzak kudeatzen dituen organoari jakinaraztea, jakin bezain laster, baldin beste diru-sarrera, dirulaguntza edo babesletza bat lortzen bada deialdi honetan diruz lagundutako jarduketa bererako.

g) Dirulaguntzaren xede diren ondasunak gutxienez ere 2 urtez edukitzea etenik gabe enpresak Nafarroan duen jarduerari atxikita, dirulaguntza ordaintzeko ebazpena ematen denetik hasita. Ondasunak erregistro publiko batean inskribatzen ahal badira, epea gutxienez 7 urtekoa izanen da, eta epe horretan enpresak jarraitu beharko du Nafarroako Artisau Enpresen Erregistroan.

h) Agerian jartzea dirulaguntza jaso dela, onuradunaren webgunean testu hau jarri: "Artisau enpresa honek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza bat jaso du, artisau enpresen inbertsioetarako 2020ko deialdian". Testu hori 2 urtez eduki beharko da, dirulaguntza emateko ebazpena argitaratzen denetik hasita.

Enpresak webgunerik ez badu, kartel bat jarri beharko da artisau tailerrean, ikusteko moduko toki batean, laguntzaren fitxan dagoen ereduari jarraituz, eta baita tailerra jendearentzat irekitzen denean edo bisitariak joaten direnean ere.

i) Ez da erabiliko emakumeak diskriminatzen duen irudirik jarduketan, publizitate euskarrietan eta diruz lagundutako jarduerak zabaltzeko materialetan; emakumeen eta gizonen berdintasuna eta rolen pluraltasuna sustatuko da, eta hizkera inklusiboa erabiliko da. Halaber, hizkera sexista erabiltzea saihestuko da diruz lagundutako jardueraren gainean prestatzen den dokumentazio guztian.

j) Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 9. artikuluan ezarritako betebeharrak orokorrak betetzea.

2. Oinarri arautzaile hauetan edo Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen ezarritako betebeharren bat bete ezean, onartutako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da edo diru hori itzuli egin beharko da, foru lege horren 35. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Halaber, aurreko betebeharrak bat hein batean betetzen ez bada, ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa berriro ere zehazten ahal da, proportzionaltasun printzipioari jarraituz, edo, zein den kasua, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

Zehazki:

a) Justifikazio agiriak aurkeztu badira 9. oinarrian ezarritako epea iragan ondoren baina 2020ko azaroaren 25a baino lehen, ordaindu beharreko

dirulaguntza %10 murriztuko da. Justifikazioa beranduago aurkeztu bada, emandako dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu dela deklaratu da.

b) Diruz lagundutako jarduketak gauzatzen badira uste zena baino merkeago, murrizketa hauek egingen dira:

—Diruz lagundutako jarduketaren %50 eta 75 artean badago, dirulaguntzaren azken ordainketa %50 murriztuko da.

—Diruz lagundutako jarduketaren %50 baino gutxiago bada, emandako dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu dela deklaratu da.

c) Ez badira betetzen oinarri honetako 1.g) apartatuan ezarritako epeak, zenbat denbora falta den betetzeko, horren proportzioan zehaztuko da itzuli beharreko zenbatekoa.

d) Artisau tailerra ez bada martxan jartzen 2021eko otsailaren 1a baino lehen, jasotako diru kopuru guztiak itzuli beharko dira, behar diren berandutze interesekin batera.

12. oinarria.—Dirulaguntzaren bateragarritasuna eta de minimis laguntzen izaera.

1. Dirulaguntza hauek bateraezina dira Garapen Ekonomiko eta Enpresarietako Departamentuak jarduketa beretarako ematen dituen bestelako dirulaguntzekin.

Hala ere, bateragarriak dira helburu berarekin Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio gainerako departamentuek, Espainiako zein atzerriko beste administrazio publiko batzuek edo beste edozein entitate publiko edo pribatuk edota partikularrek ematen dituzten laguntzekin.

Beti ere, jarduera bererako emandako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarrik edo denak baturik, ezin izanen du gainditu egin beharreko jardueraren kostua.

2. Deialdi honetako dirulaguntzak de minimis laguntzak dira, Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera. Erregelamendu horren xedea da Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluek "de minimis" laguntzei aplikatzeko modua (L 352. Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, 2013ko abenduaren 24koa).

Erregelamendu horrekin bat, enpresa bakar bati hiru zerga ekitaldiko edozein alditan emandako de minimis laguntza guztien batura ezin da 200.000 eurotik gorakoa izan. Aipatu erregelamenduen 2.2 artikuluan ezarrita dago enpresa bakarraren definizioa.

Horretarako, interesdunek kasuan kasuko zerga ekitaldian eta aurreko bi zerga ekitaldietan hartutako bestelako de minimis laguntzak aitortu beharko dituzte eskaera egiteko inprimakian.

13. oinarria.—Emandako dirulaguntzen publizitatea.

Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuak jendaurrean jarriko ditu emandako dirulaguntzak Ogasuneko Ministerioaren Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez (<http://www.pap.minhafa.gov.es/bdnstrans/GE/eu/index>), honako hauek adierazita: deialdia, laguntza zein aurrekontu kredituri egotzi zaion, onuradunak eta emandako diru kopurua.

Halaber, laguntzaren fitxan argitaratuko dira deialdi honen emaitzak.

14. oinarria.—Oinarri arautzaile hauen aurka errekurtsoa.

Oinarri arautzaile hauen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dezakete interesdunek, Garapen Ekonomiko eta Enpresarietako kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean.

F2006097

1.5. ESTATUTUAK ETA LAN HITZARMEN KOLEKTIBOAK

10D/2020 EBAZPENA, ekainaren 12koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, iragartzen duena "Asociación de Profesores de Enseñanza Secundaria de Navarra" (APSN) enpresa elkartearen desegitea gordailutu dela (gordailu zenbakia: 31000154, lehengo gordailu zenbakia: NA/381).

Onartu da aipatu elkartearen desegitea gordailutzea, egiaztatu baita betetzen dituela hauetan ezarritako betebeharrak: Sindikatuetan Elkartzeko Eskubidea arautzen duen apirilaren 1eko 19/1977 Legearen (1977ko apirilaren 4ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) eta Erakunde Sindikal eta Enpresarietako Estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren (2015eko ekainaren 20ko Estatuko Aldizkari Ofiziala).

Gordailutzeko eskaera Margarita Bermejo López andreak egin zuen, 2020/6569 sarrera-zenbakiarekin tramitatutako idazkiaren bidez.

2019ko urriaren 15ean egin Batzar Orokorrean erabaki zen elkarte desegitea eta, horrenbestez, elkarteak izaera juridikoa galdu zuen.

Margarita Bermejo López andreak izenpetzen du ziurtagiria, batzorde likidatzaileko burua den aldetik, eta batzorde horretako beste bi kideek ikus-onesten (Ana Armendariz Aramendía andrea eta Miguel Santos de la Vega jauna).

Iragarki hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea xedatzen da, bai eta iragarki-taulan argitaratzea ere, onartutakoaren berri emateko.

Ebazpen honen aurka, interesdunek errekurtoa jar dezakete Iruñeko Lan arloko epaitegietan, Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legean xedatutakoari jarraikiz (2011ko urriaren 11ko Estatuko Aldizkari Ofiziala).

Iruñean, 2020ko ekainaren 12an.–Enpresa Politikaren, Nazioarteko proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusia, Izaskun Goñi Razquin.

F2006160

1.7. BESTELAKOAK

4799E/2020 EBAZPENA, ekainaren 26koa, Barneko zuzendari nagusiak emana.

Nafarroako zezen plazetan jokatu diren zezenen osasun eta gaitasun azterketa eginen duten al baitari izendapenari dagokionez ekainaren 29ko 249/1992 Foru Dekretuan jasota dauden xedapenak betetzeko asmoz, eta 2020ko zezenketen denboraldia hasia denez gero, bidezko da izendapen hori egitea, oinarri harturik Nafarroako Gobernuak Abeltzaintza Zerbitzuak, Osasun Publikoaren Institutuak eta Iruñeko Udalak egindako proposamenak.

Horrenbestez, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen urriaren 30eko 259/2019 Foru Dekretuaren bidez eman zaizkidan ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Honako al baitari hauek izendatzea Nafarroako zezen plazetan aurreten jokatu diren zezenen osasun eta gaitasun azterketa egin dezaten:

AGUADO LETE, ALBERTO
 ALVAREZ MARTÍNEZ, FERNANDO
 ARRAIZA ZORZANO, RONCESVALLES
 ARRIAGA OROQUIETA, ANDRÉS
 ARRIETA ANIZ, CRISTINA
 ARTOLA IGARZA, IDOYA
 ASCUNCE HERNÁNDEZ, RAFAEL
 ASIÁIN AZCONA, ALBERTO
 AZABAL CASTILLO, CARMEN
 AZCOITI ESEVERRI, MARÍA CONCEPCIÓN
 AZCONA IZCO, MARÍA PILAR
 BAUTISTA SANZ, ISAÍAS
 BEUNZA NUIN, ROSA
 BLANCO LEÓN, JESÚS
 CABODEVILLA ABADÍA, ANA
 CASADO ARBONIÉS, NORA
 CASADO MARTÍNEZ, SUSANA
 CASI VÉLAZ, MARÍA EUGENIA
 CHAVARRI ANCÍN, JAVIER
 CRESPO DELGADO, NURIA ESTHER
 DE ANDRÉS HUALDE, JESÚS MARÍA
 DÍEZ ATIENZA, ELENA
 ECHAURI ARANA, ASÚN
 FERNÁNDEZ ÁLVAREZ, IGNACIO
 FERNÁNDEZ SALINAS, CÉSAR

FERNÁNDEZ SANZ, CRISTINA
 FERNÁNDEZ ZUDAIRE, ANA CARMEN
 FERNÁNDEZ ZUDAIRE, M. ANGELES
 FERRER CERÓN, MARÍA BELÉN
 GANUZA BORREGA, BEATRIZ
 GARCÍA ULLATE, FRANCISCO JAVIER
 GARDE LECUMBERRI, ANGEL MARÍA
 GAVIRIA ANDUEZA, FERNANDO
 GONZÁLEZ ALVARADO, RAÚL
 GOÑI ÁLVAREZ DE EULATE, EVA
 GREGORIO LÓPEZ, YOLANDA
 GUILLÉN ARDANAZ, BELÉN
 IBARRA MURILLO, MARÍA JOSÉ
 IRAÍZOZ AGUERRI, EDURNE
 IRISARRI GOÑI, MARÍA GORETTI
 JIMÉNEZ OCHOA, AGURTZANE
 LECUMBERRI ARDANAZ, ANGEL MARÍA
 LÓPEZ GALINDO, ROSA
 LORANCA JIMÉNEZ, ROSA
 LOSARCOS ESCALERA, EDUARDO
 MARTÍNEZ PÉREZ, MIGUEL ÁNGEL
 MAYORAL COSCOLÍN, VICTORIANO
 MELER APESTEGUÍA, JAVIER
 MIGUEL GARCÍA, JULIÁN
 MIRANDA LÓPEZ, ALICIA
 MUNÁRRIZ ARDÁIZ, RAQUEL
 MUNIAIN AIZCORBE, SARA
 NAVARRO CASPISTEGUI, DAVID
 NAVARRO CORTÉS, MARÍA PILAR
 NAVARRO SANZ, PEDRO
 OTEIZA ORRADRE, PEDRO
 PEIRO LÓPEZ, RAFAEL
 PELAYO CAMPOS, MARÍA PAZ
 PEREIRA ÁLVAREZ, ANA
 PERFECTO SAN MIGUEL, MARIBEL
 POBLADOR SANCHEZ, AGUSTÍN
 RAZQUIN GOICOA, JESÚS MARÍA
 REGALADO IZURDIAGA, FRANCISCO
 RESANO ZUAZU, MARÍA
 ROS NESTARES, ALBERTO
 SAN JOSÉ PASCUAL, ANA
 SÁNCHEZ RATIA, CARLOS
 SÁNCHEZ RUIZ DE GAONA, IGNACIO
 SANZ DE LA IGLESIA, JESÚS
 SARA BENEDÉ, EDUARDO
 SAROBE CARRICAS, JESÚS
 SORIA LABARGA, MARÍA LUISA
 SOTERAS MATEO, PILAR
 VICENTE FERRERO, ÁNGEL CARLOS
 YUNTA GONZÁLEZ, JUAN RAMÓN
 ZALBA AGORRETA, INÉS
 ZARIQUIEGUI ASIAIN, GUADALUPE

2. Iruñeko zezen plazan eginen diren zezenketetan eta pikadoreekiko nobilladetan lau al baitari arituko dira lanean. Horietatik bi Abeltzaintza Zerbitzuaren mendekoak izanen dira, eta beste biak, Osasun Publikoaren Institutuaren edo Iruñeko Udalaren mendekoak.

Nafarroako gainerako zezen plazetan egiten diren ikuskizunetan, bi al baitari arituko dira batera lanean, bata Abeltzaintza Zerbitzuko, eta bestea Osasun Publikoaren Institutuko. Nolanahi den, hirugarren al baitari batek hartuko ditu bere gain, modu esklusiboan, kontsumorako haragiaren kontrolari buruzko eginkizunak.

3. Abeltzaintza Zerbitzuari eta Osasun Publikoaren Institutuari dago-kie aukeratzea ebazpen honetan proposatu eta izendatutako al baitarietatik zein joan den herri bakoitzera.

4. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2020ko ekainaren 26an.–Barneko zuzendari nagusia, Amparo López Antelo.

F2006905

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

ALTSASU

Laburpena, dirulaguntzen deialdiarena, honako hauei emateko: Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxe publiko, itundu eta diruz lagundutako, baita Guraso Elkarteak eta Gurasoen irakaskuntzako kooperatibei ere

Oharra: testu osoa kontsulta daiteke Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen (<http://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>). DDBN (identifikazioa): 510700.

Altsasun, 2020ko ekainaren 8an.—Alkatea, Javier Ollo Martinez.

L2006149

ANTSOAIN

Laburpena, Antsoaingo Udalaren eta Ezkaba ikastetxe publikoko Guraso Elkartearen lankidetzak hitzarmenarena, Antsoaingo ikastetxean jarduerak egiteko 2019/2020 ikasturtean

Oharra: testu osoa kontsulta daiteke Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen (<http://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>). DDBN (identifikazioa): 511522.

Xedea: Antsoaingo Udalaren indarreko aurrekontuan ageri den dirulaguntza izenduna bideratzea, baita ezartzea ere pertsona edo entitate onuradunak bere gain hartzen dituen baldintza eta konpromisoak.

Antsoaingo Udalaren aurtengo indarreko aurrekontu orokorrean dirulaguntza izendun bat aurreikusi da Ezkaba ikastetxe publikoko Guraso Elkartearentzat.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 22.2 artikulua ezartzen du zuzenean eman daitezkeela toki entitateen aurrekontuetan ezarritako dirulaguntza izendunak, hitzarmeneta eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan bildu moduan. 28. artikulua ezartzen du hitzarmenak izan direla ohiko tresna dirulaguntza horiek bideratzeko. Bestalde, Antsoaingo Udalaren Dirulaguntzen ordenantza orokorrak, 8.2. artikuluan eta hurrengoetan, arautzen du zein diren araubideak eta prozedura Udalaren aurrekontu orokorrean ezarritako dirulaguntza izendunak zuzenean emateko.

Antsoain, 2020ko ekainaren 18an.—Alkatea, Ander Andoni Oroz Casimiro.

L2006323

BARILLAS

Bake epaile titularren eta haren ordezkoren karguak hutsik

Legean ezarritako lau urteko kargualdia bukatzeaz dagoenez, eta Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren 101. artikuluan eta Bake Epailei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduen 5, 6 eta 7.etan ezarriari jarraikiz, Barillasko (Nafarroa) bake epaile titularren eta ordezkoren karguak betetzeko deialdia iragarri da. Iragarri hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost eguneko epean, legeko baldintzak betetzen dituzten interesdunak Udalaren bulegoetan aurkezteko ahal dute eskabidea, aipatu karguetako edozeinetarako hautatuak izateko eskatu beharrez.

Argitara ematen da, orok jakin dezan eta behar diren ondorioak izan ditzan.

Barillasen, 2020ko ekainaren 12an.—Alkatea, Ramón Martínez Zardoya.

L2006062

BURLATA

Deialdia, D ereduko ikasleendako 2019-2020 ikasturtean udako euskarazko kanpaldietarako dirulaguntzak emateko. Laburpena

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz, argitara ematen da deialdiaren laburpena; horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhafp.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>). DDBN (Identif.): 513183.

Burlatako Udalak dirulaguntzak emanen ditu euskaraz osorik egiten diren udako kanpaldietan parte hartzeko, oinarriak arautzen dituen udal ordenantzari jarraikiz. Hura 2014ko 156. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abuztuaren 11n.

Deialdiaren xedea: hein batean finantzatzea D ereduko ikasleendako antolatzen diren euskarazko kanpaldietan parte hartzeak dakarren gastua; horietan edukia ludikoak, kirol arlokoak eta/edo natura arlokoak izan diren.

Deialdi honetatik aparte daude: zuzenean edo zeharka Burlatako Udalaren bitartez kudeatzen direnak, edo Udalak diruz laguntzen dituenak, jada murriztua baitute dirulaguntza kuota.

a) Txangoak edo bidaiak.

b) Herrian edo herriak hurbil gauzatzen diren beste jarduerak batzuk, barnetegirik behar ez dutenak.

Eskatzaileen betebeharrak:

Dirulaguntzak eska ditzakete eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean honako baldintza hauek betetzen dituztenek:

a) Lehen Hezkuntzako edo DBHko ikaslea izatea.

b) D ereduko ikaslea izatea (eskola publikoan edo ikastolan).

c) Burlatan gutxienez ere urtebete eroldaturik egotea deialdia argitaratzen den egunean.

—Burlatako Udalarekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea. Udalak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori eta behar den eginbidearen bitartez jasoko. Era berean, dirulaguntza emateko proposamena egin aurretik, ofizioz egiaztatuko da interesdunak ez duela Udal Diruzaintzari itzuli beharreko zenbatekorik.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira, espresuki, honako hauek:

a) Dirulaguntzen hartzaile edo lankidetzak hitzarmenen sinatzaile izanik, Burlatako Udalarekiko betebeharrak urratu edo bete ez dituztenak, aurreko bi ekitaldietan.

b) Oro har, aurreko puntuan zehazturiko oinarriko baldintza horietakoren bat betetzen ez dutenak.

Ez dira dokumentu bidez frogatu behariko udal agiritegietan bilduta dauden alderdiak, azken lau urtean aldaketarik egon ez bada, oinarrietan berariaz eskatu ezean betiere.

Entitateek dirulaguntzak eskatzen ahal dituzte, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean beharkizun hauek betez gero:

Eskaerak non eta noiz aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bitartez aurkeztuko dira, eskatzaileak sinatuta eta ondoko hauek erantsita:

Eskabideei dokumentazio hau erantsi behariko zaie:

—Eskatzailearen edo aitaren/amaren/legezko tutorearen NANaren fotokopia.

—Familiaren diru-sarrera gordinen frogagiria (2019ko errenta aitoren-pena).

—Kanpaldia antolatzen duen entitatearen ziurtagiria, non kanpaldia baldintzak zehaztuko baitira —euskarari emandako tratamendua eta hizkuntza helburuak, iraupen datak, jardueren programa edo liburuxka—, bai eta bertan egon izanari buruzko ziurtagiria ere.

—Matrikularen ordainagiria (banketxeak luzatua), matrikularen %100 ordaindua dagoela dioena.

—Dirulaguntza zein banku-libretatan jaso nahi den, haren lehenbiziko orrialdearen fotokopia (IBAN zenbakia).

Agiri guztiak jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan diren.

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko irailaren 15etik 30era da. Eskaerak aurkezteko epea ezin izan dena da luzatu.

Eskabideak Burlatako Udalaren Egoitza Elektronikoko edo Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (Larrainetako plaza, z.g., 31600 Burlata) edo Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 38. artikuluan aipatu moduetako batean.

Testu honetan arautu ez den orotan, oinarri arautzaileetan ezarritakoari lotu behar zaizkio eskatzaileak. Oinarri horiek 2014ko 156. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, abuztuaren 11n.

—2.500 euroko gastua onartzea deialdi honetarako.

Burlatan, 2020ko ekainaren 24an.—Alkatea, Ana M.^a Gongora Urzaiz.

L2006907

EUGI

Herri-lurren okupazioa Legua Acotada mendian, Magnesitas Navarras SAREN aldetik, "El Quinto" ustiatzearen proiektuak okupatutako lurak handitzeko. Jendaurrean jartzea

Ollarmendiko Komunitateko Batzarrek, 2020ko ekainaren 5ean egin bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea Magnesitas Navarras SAK Legua Acotada mendian herri-lurretako 87.427 m² okupatzeko baimenaren baldintzak, "El Quinto" ustiatzearen 130 mailako ebakian sakontzeko proiektuak okupatutako lurak handitzeko.

Espedientea jendaurrean egonen da Eugiko Kontzejuaren bulegoan hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, herritarrek edo interesdunek aztertu eta, behar izatera, bidezko juzgatzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten. Alegaziorik aurkezten ez bada, Ollarmendiko Komunitateak behin betiko onetsitatzat joko ditu baldintza horiek eta baita lurak okupatzeko baimena ere.

Erron, 2020ko ekainaren 5ean.—Lehendakaria, Iñaki Etxeberria Beldain.
L2006428

GALAR

Egoitza elektronikoa sortzea

Bete dadin Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa, eta herritarrek sistema telematikoa izan dezaten gure entitatearekin komunikatzeko,

EBAZTEN DUT:

1. Galarko Udalaren egoitza elektronikoa sortzea <https://sedeelectronica.cendeaegalar.es> helbide elektronikoan. Galarko Udala da Interneteko domeinuaren jabea, bai eta egoitzaren titularra ere.
2. Egoitza elektronikoak indarra hartuko du ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.
3. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila agintzea.
4. Ebazpen hau udaleko alor guztiei jakinaraztea, eta Galarko Udalaren web-atarian eta egoitza elektronikoan argitaratzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun beretik aurrera.
5. Galarko Udaleko Idazkaritza Nagusiari esleitzea egoitza elektroniko zuzendu eta koordinatzeko eginkizunak.

Getze Galarren, 2020ko ekainaren 18an.—Alkatea, Óscar Amóztegui Recalde.

L2006364

SESMA

Herri-lurren desafektazioa, 11-132-A eta 11-133-A lurzatietan

Udalak, 2020ko ekainaren 11n egin osoko bilkuran, lege eskatutako gehiengoarekin, erabaki zuen hasiera batez onestea MTorres Desarrollos Energeticosek eskatutako herri-lurren desafektazioa, "El Oliado" parke eolikoan neurketa dorre bat jartzeko. Zehazki 7.092 m² dira, 11-132-A eta 11-133-A lurzatietan.

Aditza ematen da orok jakin dezan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabeteko epean alegazioak aurkez daitezten, Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 140. artikularekin bat. Horretarako, espedientea jendaurrean egonen da udal bulegoetan, hura aztertu nahi duen ororen eskura.

Sesman, 2020ko ekainaren 12an.—Alkatea, Rosario Echávarri Pini-llos.

L2006073

VIANA

Laborantzako herri-lurzatiaren aprobetxamendua. Eskaera

Vianako Udalak, 2020ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen hamabost eguneko epea irekitzea, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera, zertarako eta eskubidea dutela uste duten herritarrek eska dezaten laborantzako honako herri-lur hauen lehentasunezko aprobetxamendua edo esleipen zuzeneko, zer dagokien eta horixe:

Soto: 31. poligonoa, 220. lurzatia.

Aditza ematen da orok jakin dezan, bat etorri Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen gaineko 181. artikularekin.

Vianan, 2020ko ekainaren 18an.—Alkatea, Yolanda González García.

L2006369

DEIERRI

Katastroko aldaketa, Aritzalako 25. poligonoko 306. lurzatiaren titular ezezaguna baitu

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 32.7 artikuluan ezarritakoarekin bat, Alkatetzaren 2020ko ekainaren 15eko Ebazpenaren bidez abiatu da Lurralde Aberastasunaren Erregistroko oinarritzako datuak aldatzeko espedientea, honako honi dagokionez: Aritzalako 25. poligonoko 306. lurzatia, Eza alderdian, "Deierriko ezezagunaren" izenean agertzen dena.

Iragarki honen bidez ebazpen honen berri ematen zaie interesdunei, hilabeteko epean alegazioak aurkez ditzaten eta 25. poligonoko 306. lurzatiari dagokion jabetza titulua eta beharrezkotzat jotzen dituzten gainerako agiriak ekar ditzaten.

Aritzalan (Deierri), 2020ko ekainaren 17an.—Alkatea, Eduardo Lezaun Echalar.

L2006176